2023-10-11 EGUAZTENA / 1.009. ZENBAKIA / 23. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

# goiena

Zu hemen zaude.



# SAGARRAK BATZEKO SASOIA

Urte ona izan da Aramaioko Altzagainekoa baserrian, Debagoieneko gehienetan bezala. Sagar asko batu dituzte. Aramaioko Sagarzalien Elkartearen Mendixola zentroko dolarean egingo dute sagardoa / 2

Felipe Zabala eta Bizente Osoro, sagarrak batzen joan zen barikuan, Aramaioko Altzagainekoa baserrian. XABIER URZELAI



**GOIENA TELEBISTAREN GAINEKO GEHIGARRIA** / 23

**'Arnasaldiak' diskoa aurkeztuko du Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak domekan Oñatin** / 27

**Oihana Kortazar, Ainara Urrutia eta Malen Osa mendi lasterkariak aurrean, denboraldi amaieran** / 28

**Fagor Etxetresnak itxi zutela 10 urte igarota, Fagor Taldea "baikor" agertu da etorkizunarekin** / 4

**SINADURAK**


MONIKA MADINABEITIA MEDRANO / 6


JOSU ZUBIA / 27


JOSU ZUGASTI / 8


MIKEL BIAIN / 38

+



Herri kirolen susperraldia Debagoienean ere

Andoni Gartzia Oñatiko alkate ohiari elkarrizketa

RURAL KUTXA
Zure aurrezkiak gorago iritsiko dira
Ikus 20 eta 21 orrialdeak
www.ruralkutxa.com

# Sagar ugari esku artean

Sagarra batzeko garaia izaten da urriaren hasiera. Bi urtean behin izaten da, ondo bidean, uzta ona Euskal Herrian, eta aurten hala izan dela aprobetxatuz, sagar kopuru handiak batu dituzte Debagoien osoan zehar sagardoa edo zukua egiteko



Altzagainekoa baserrian, Aramaion, Felipe Zabala eta Bizente Osoro. XABIER URZELAI

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA

Sagarra bera lortzeko, sagar-zukua egiteko edo sagardoa ekoizteko bide ematen dute azken asteetan egin diren sagar batzeek, irailaren erdi aldetik izan baita sagar garaia. Baserri askotan izaten dute sagar batze horiek egiteko aukera Debagoien osoan, ostean erabilera ezberdinak emateko; lanean aritu diren horietako batzuk dira Altzagainekoa baserriko kideak.

Baserri hartakoa da Unai Osoro, eta, horretaz gain, Aramaioko Sagarzalien Elkarteko lehendakaria ere bada. Hark dio irailaren 16an hasi zirela batzen eta "handik hamabost bat egunera" egin zutela bigarren eta azken dolarea. Sagarrondo asko dituzte Altzagainekoan, eta horietatik guztietatik jasotako sagarrekin haiendako "nahikoa" batu dutela adierazi du Osorok; hala ere, azaldu du oraindik gelditzen zaizkien sagarrak erabiltzeko prest daudela "gertuko norbaitek behar izanez gero".

## Uzta ona

Sagar-zuku eta sagardo asko ekoiztuko dela aurreikusten da aurten; izan ere, aurtengo uzta oso handia izan da. Sagar mota ugari batu dituzte aste hauetan guztietan; besteak beste, Goldena, Errezila edo Errege sagarra. Bi urtean behin izaten dira horrelako uztak, eta aurten egokitu zaie sagar-zaleei kopuru handi horiek batzea. Beste urte batzuekin alderatuta nahiko uzta parekatua izan da, kopuruei dagokienez, baina bai egon da aldaketa nabarmen bat: uztaren iritsiera momentua.

Uda osoan zehar izan diren eta gaur egun ere jarraitzen duten beroek aurreratu egin dute uztaren iritsiera, eta, beraz, baserrietan aurrez antolatu behar izan dituzte sagarra batzeko egunak.

Aurtengo kopuruen inguruan ezin izan du ezer aurreratu Osorok "oraindik jendea zukua eta sagardoa egiten" ari delako, baina duela pare bat urte 30.000 kilo inguru egin zituztela aitortu du.

## Sagarra batzeko metodoak

Baserri bakoitzean metodo ezberdina erabiltzen dute sagarra batzeko orduan; izan ere, norberak sagarrari emango dion erabileraren arabera ere aldatu egiten da hura batzeko modua. Altzagainekoek etxean pare bat modu erabiltzen dituztela azaldu du Osorok: "Denetik dago. Batzuek banan-banan jasotzen dute, eta beste batzuek kantitate handika batzen dituzte sagarrak. Guk plastiko bat jartzen dugu sagarrondoaren azpian, eta, ondoren, zuhaitza astintzen dugu fruituak plastikora erortzeko; hori egiten dugu sagar-zukua edo sagardoa egiteko sagarrak batu nahi ditugunean. Etxean jateko sagarrak behar baditugu, banaka batzen ditugu zuhaitzetik".

Sagarrondoa astindu eta fruitua plastikora erortzearen metodoak badu arrazoi nagusi bat. Sagar horiek erabiltzen dituzte zukua edo sagardoa egiteko, eta, hori dela eta, komeni da sagarra garbi egotea; izan ere, horrela izan ezean, "norberak ekoiztutako zuku edo sagardoak ere zikinkeriaren bat izango luke".

## Aramaioko Sagarzalien Elkartea

Duela hogei bat urte sortu zen Aramaioko Sagarzalien Elkartea, eta ordutik zaletasuna handitzen joan da bertakoen artean. Elkartea sortu zenean jende askok jarri zituen sagarrondoak haien etxeetan, eta orain sagarrondo horiek fruituak ematen hasi dira. Dolarea du elkarteak Aramaion, Mendixolan zehazki, baina aurretik kalean ere izan ziren: "Lehen kalean egoten ginen, udalak utzitako lokal batzuetan, eta duela hamar edo hamabi urte etorri ginen Mendixolara". Bere garaian sagarrondoak jarri eta orain sagarrak dituzten askok dolarera eramaten dituzte haien fruituak, sagar-zukua edo sagardoa egiteko.



Batutako sagarrak, kaxan. X.U.



Banaka edo zuhaitza astinduz batzen dituzte sagarrak Altzagainekoan. X.U.

**"ERREGE SAGARRA EDO ERREZILA BATU DITUGU, BESTEAK BESTE"**

UNAI OSORO, ARAMAIOKO SAGARZALIEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

**"SAGARDOA ETA SAGAR-ZUKUA EGITEN DUGU MENDIXOLAKO DOLAREAN"**

UNAI OSORO, ARAMAIOKO SAGARZALIEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Izan ere, elkarteak ematen duen zerbitzua honetan datza –bai bertako bazkide direnei, baina baita bazkide ez diren horiei ere–: norberaren sagarrak bertara eraman eta sagar-zukua edo sagardoa ekoiztean. 35 bazkide inguruz osatuta dago elkartea, eta "geroz eta jende gehiago" batzen ari dela aitortu du Osorok. Gainera, badaude kanpotik sagarrak Aramaioko dolarera eramaten dituztenak ere, han zukua edo sagardoa egiteko.

**"1.400 ZUHAITZ INGURU DITUGU, ETA SAGAR HORIEKIN EKOIZTEN DUGU"**

JUANJO PECIÑA, ITURRIETA SAGARDOTEGIKOA

**"ASTURIASKO LAU MOTA KENDUTA, GUZTIAK EUSKAL SAGARRAK DIRA"**

JUANJO PECIÑA, ITURRIETA SAGARDOTEGIKOA

## Datorren urteari begira

Osorok azaldu du, gauzak aldatzen ez diren bitartean, datorren urteko uzta ez dela izango "aurtengo uzta bezain handia", baina, hala ere, jendeak lortzen ditu dolarera eramateko sagarrak, hainbat modutan.

Dolarean 700 bat kilo sagarrekin egin daiteke lan, eta, beraz, elkarteko kideek gomendatzen dute "kilo horiek guztiak eramatea". Uzta, baina, ez bada aurten bezain handia izaten, sagarrondoak dituztenek bide bat baino gehiago erabiltzen dituzte batutako sagarrak dolarera eramateko: "Batzuek kanpotik hartzen dituzte sagarrak, eta haiek batutakoekin batera ekartzen dituzte dolarera zukua edo sagardoa egiteko. Beste kasu batzuetan, sagarrondoak dituzten batzuk elkartzen dira eta haien artean batutako guztiak eramaten dituzte dolarera".

## Iturrietan ere lanean

Etxerako sagardoaz gain, sagardotegian kontsumitzeko ere batu dituzte sagarrak Aramaion, bertan baitago Debagoieneko sagardotegi bakarra: Iturrieta sagardotegia. Duela 25 bat urte



ireki zuten sagardotegia Aramaion, eta, ordutik, haien sagardoa ekoiztu dute. 1.400 bat zuhaitz dauzkate, eta sagarrondo horietatik hartzen dituzte sagarrak. Sagar mota ezberdin asko batu dituzte, eta Asturias aldeko lau mota kenduta, beste guztiak Euskal Herriko sagarrak dira, berariaz sagardoa ekoizteko erabilitakoak –sagardotarako sagar horiek erabiltzen dituzte sagar-zukua egiteko ere–.

Aurtengo uzta oso ona izan da, eta Juanjo Peciñak, Iturrieta sagardotegiko arduradunak, adierazi du espero dutela "55 tona sagar inguru" batzea. Batutako sagarrei erabilera ezberdinak ematen dizkie Iturrietan: "Batzen ditugun sagarren %75 inguru erabiltzen dugu sagardoa egiteko, gainontzeko gehiena sagar-zukua egiteko erabiltzen dugu". Izan ere, Iturrieta sagardotegian aspaldi hasi ziren sagar-zukua ere eskaintzen: "Hogei urte inguru daramatzagu sagar-zukua ere eskaintzen. Oso gozoa izaten da eta mundu guztiari zuzenduta dagoen edaria da; jende askok kontsumitzen du".

Hasiera batean, familiako kideak eta lagunak elkartzen ziren sagarra batzeko lanak egiteko, baina ekoizpen kopuruak gora egin ahalaz bat, jende gehiagoren beharra izan dute. Beraz, urteak joan eta urteak etorri, geroz eta jende gehiago elkartzen da Iturrietakoek dituzten zuhaitz guztietako sagarrak batzeko. Haiek erabiltzen duten teknika ere zuhaitza astintzearena da; horrela, oihal handi batera erortzen dira sagar guztiak eta sagardoa egiteko erabiltzen dituzte, gehienbat. Aurtengo uzta oso ona izan den bezala, badaude fruitu asko ematen ez dituzten urteak ere. Kasu horietan, haiek dituzten zuhaitzetatik bai, baina kanpotik ere ekarri behar izaten dituzte sagarrak. Hori bai, toki ekologikoetatik hartutako sagarrak izaten dira horiek ere; horretaz gain, Euskal Herrian batutakoak izaten dira haiek erabiltzen dituzten sagarrak.

Hilabete gutxira hasiko da sagardo sasoia, eta Iturrieta sagardotegikoek gogotsu egiten diote aurre garai horri: "Gogo askorekin jasotzen dugu sasoia, jende asko batzen baita sagardotegian. Debagoieneko sagardotegi bakarra da Iturrieta, eta, beraz, inguruko jende asko bai, baina bailarako jendea ere ibiltzen da hemen inguruan. Giro oso ona izaten dugu, eta euskal musikarekin ere gozatzeko aukera izaten dugu. Horretaz gain, uda garaian ere etortzen da jendea, familian gozatzeko momentu ona izaten delako eta hemen oso giro ona izaten dugulako. Baina, guretzat, urteko unerik garrantzitsuena sagardo eta sagardotegi garaikoa izaten da".



## Txakolina egiteko mahatsa batzen

Mahatsa batzeko sasoia ere izan da irailaren amaieran hasi eta urriaren hasiera bitartean iraun duena. Debagoienean badaude mahasti ugari, eta badaude mahasti horietatik lortutako fruitua txakolina egiteko erabiltzen dutenak ere: Kataide, Arrasaten; eta Belaskua, Upaingoa, Kostei eta Murgialdai, Oñatin.

Murgialdaiko Aritz Galdosek eta Belaskuako Jon Urzelaik adierazi dute "urte gogorra" izan dela, batez ere, uda garaian izandako hezetasun eta ekaitzen ondorioz. Iraileko azken astean batu zituzten bai Murgialdaikoek zein Belaskuakoek mahatsak, eta biak bat etorri dira esanez "aurreko urteko uzta oso ona" izan zela eta aurten "mahats gutxiago" batu dutela. Hala ere, adierazi dute batu duten mahatsa "kalitate oso onekoa" izan dela eta, aurten ere, "txakolin ona" egitea espero dutela.






2013ko urriaren 18an Arrasaten eginiko manifestazioa, Fagor Etxetresnetako langileen "lanpostuen defentsan". GOIENA

# Hamar urte igaro ostean, Fagor "baikor" geroarekin

Urriaren 16an hamar urte beteko dira Fagor Etxetresnak kooperatibak konkurtso legera jo zuenetik; ondoren, itxiera etorri zen. Hamar urte igarota, Fagor Taldeko arduradunek azaldu dutenez, "indartsu eta osasuntsu" daude zortzi kooperatibak

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ARRASATE

Fagor Taldearen arabera, "krisi latzean" murgildu ziren duela hamar urte. "Taldeak zituen zortzi kooperatibetako batek, handienak eta ezagunenak, bueltarik gabeko beherakada izan zuen. Askotarikoak izan ziren Fagor Etxetresnen itxierak izan zituen eraginak: galera ekonomiko garrantzitsuak, konkurtsoari lotutako prozedura legal guztiari aurre egin beharra, eta bereziki, ziurgabetasun egoeran geratu ziren bazkideen egoera kudeatzeko betebeharra". Ordu hartan, "lehentasuntzat" izan zuten egoerari buelta ematea, eta, azaldu dutenez, orduz geroztik, "zenbait elkartasun mekanismo indartzearekin batera", hainbat egokitzapen egin dira.

Emandako datuen arabera, 5.600 langile zituen Fagor Etxetresnak kooperatibak duela hamarkada bat, eta horietatik 1.736 bazkide langileak ziren. Hori dela eta, "elkartasun mekanismoak" jarri nahi izan zituzten martxan. "Langabezia prestazioa, aurretiko erretiroak eta beste kooperatibetan birkokatzea izan ziren horien artean esanguratsuenak. Finean, aurrekaririk gabeko egoera hari aurre egiteko, arauak moldatu beharra izan zuen Lagun Arok". Hain justu, zehaztu dute "bikoiztu" egin zela Lagun Aron dauden ia ehun kooperatibetako bazkideek langabezia prestazioa finantzatzeko ordaintzen duten kuota, aurretiko erretirorako aukera eskaini zitzaiela 55 urtetik gorakoei, eta birkokatzeak "azkartzeko" mekanismoak abiarazi zirela.

**Lehentasunak zehaztuta**

Birkokatzeetan jarri zuten arreta ordu hartan, eta nabarmendu dutenez, horretarako "funtsezkoa" izan zen Mondragon korporazioa osatzen duten kooperatibek izan zuten "inplikazioa". Haien hitzetan, "behin betiko soluzioa" izan zuten Fagor Etxetresnak kooperatibak zituen 1.736 bazkidetatik 1.405ek. "Birkokatze prozesurako konpromiso irmoa hartu zen Fagor Taldean (...). Bazkideek ere ahalegin berezia egin beharra izan dute azken hamarkadan. Guztion artean egin zaio aurre egoerari".

Hala, gaineratu dute "irakasgaia" izan dela eurentzat egoera hau guztia. "Eredua sendotzera eta babestera bideratutako hainbat aldaketa egin ditugu azken urteetan", eta aipagarritzat jo dute "kooperatibaren egoera ekonomiko-finantzarioarekin zorrotzagoak eta erantzunkideagoak izateko" arau markoan egindako aldaketak. "Orain, prestatuago gaude merkatuan gertatzen diren gorabeherei azkarrago erantzuteko eta etorkizuneko testuinguru aldakorretara egoki moldatzeko".

**BIRKOKATZEETAN, "FUNTSEZKOA" IZAN ZEN KORPORAZIOKO KOOPERATIBEN "INPLIKAZIOA"**

**Egungo egoerari begira**

Fagor Taldeko arduradunek, beraz, baikor begiratzen diote etorkizunari. Zortzi kooperatibak "osasuntsu eta sendo" daudela jakinarazi dute, eta liderren artean direla automozioaren, etxetresnen osagaien, makina erremintaren, ostalaritza zein sukaldaritza ekipamenduen edo eguzki energiaren sektoreetan.

Orain, beraz, erronka berriak dituzte eskuartean, batez ere, iraunkortasunak eta digitalizazioak ezaugarritutako testuinguru berrira moldatu nahian, lehiakorrak izateko nahia dute. "Beti ere, egungo lanpostuak mantendu eta berriak sortzen jarraitu guran. Eta horretan geratu barik, kooperatibagintzak bereizgarri duen gobernantza demokratikoa hobetzen ere badihardugu. Fagorrek kideen ongizaterako urratsekin uztartzen ditu horiek".

Era berean, azpimarratu dute Fagorrek arreta berezia duela jarrita Lur planetaren iraunkortasunean, eta hainbat ekimen abiarazita dituela "kooperatibetako ekoizpen prozesuek eta produktuek ingurumenean sortzen duten inpaktua murrizteko". Are gehiago, erantsi dute gizartearen aldeko lanean jarraitzeko konpromisoz dihardutela lanean; esate baterako, Fagor Taldearen gizarte funtsaren bitartez.

# Familian egiteko planak Debagoienean urriko zubian

Ohiko bisitez aparte, beste zortzi ekintza antolatu dituzte datozen lau egunetarako

**I.A.A.** ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak bailarako turismo eskaintza zabaldu du datozen lau egunetarako, eta asteburuko ohiko bisitez aparte, familiei zuzendutako ekintzak antolatu ditu *Bizi natura familian* izenburupean, Bergaran, Oñatin eta Leintz Gatzagan egiteko.

Hilaren 12rako bi ekintza antolatu dituzte. Gatzagako Gatz museoan bi bisita gidatu egingo dituzte –12:00etan, euskaraz; 13:00etan, gaztelaniaz–. 16:00etan, berriz, *Bizi pottoka* egingo dute Oñatiko Pottokalekun, baina Mankomunitatetik jakinarazi dute dagoeneko plazak beteta daudela. Egubakoitz goizean, Arantzatzuko santutegia ezagutu ahal izango da familian 11:00etatik aurrera, edo Bergarako Laboratorium museoko *Escape the museum*-en hartu ahal izango da parte. Arratsaldean, berriz, *Lehoiaren bila* bisita tailerra egingo da, 16:30ean hasita, Oñatin.

Zapatuan, hilak 14, eguerdiko hamabietan *Afrikako kakaoaren historia*-ren bisita egingo dute Oñatiko Txokolateixan, eta 15:00etan, berriz, Espeleotxiki Arrikrutzen. Azkenik, domekan, 11:00etan *Arantzazuko altxorraren bila* jolasa antolatu dute Parketxean.

**Izen-ematea**

Jardueretan aurrez izena emateko gomendioa egin du Debagoieneko Mankomunitateak, plaza kopurua mugatua baita. Horretarako, *infoturismo@debagoiena.eus* helbidera idatzi edo 943 79 64 65 telefonora deitu behar da. Ekintzetan parte hartzeko ez dago gutxieneko adinik, baina azaldu dute Espeleotxiki, *Escape the museum* edota *Altxorraren bila* jolasa 7-8 urtetik gorako haurrei gomendatzen dizkietela.

# Plasma dohaintzan eman daiteke Arrasaten

Otsailean hasi ziren plasmaferesi-saioak egiten Arrasateko Kulturaten eta irailean Arrasateko ospitalera lekualdatu zituzten; plasma-ateraldiak hileko bigarren eta laugarren martitzenetan egiten dituzte Gasteiztik ekarritako bi makinarekin

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE

Martitzenean egin zuten urriko lehen plasmaferesi hitzordua Arrasateko ospitalean. Otsailean hasi ziren Arrasaten plasma ateraldiak egiten, Arabako Odol Emaileen Elkartean sustapen arduradun den Aiala Elorzaren esanetan "argi eta garbi" ikusi baitzuten plasmaferesiak bailaran egin behar zirela, herritar asko joaten baitziren Gasteizera: "Arrasateko, Aretxabaletako edota Eskoriatzako emaileak Gasteizera etortzen ziren hilero. Horrek esfortzu ikaragarria eskatzen zuen haientzat, eta esan genuen, aukera izanez gero, geu hurbilduko ginela".

Plasmaferesiaren prozesuaz galdetuta, honela azaldu du Elorzak: "Ohiko odol-emateetan odola osagai guztiekin hartzen dugu. Plasmaferesian plasma hartzen da soilik. Plasma-emailea makina batera konektatzen da. Makina hori zelula bereizle bat da, eta berak egiten du odoleko osagaien banaketa. Ateratzen duen odol kantitatea filtratu egiten du; plasma kendu eta gainerakoak emaileari itzultzen dizkio. Prozesu hau zenbait aldiz errepikatzen da saio bakoitzean. Horrela, lortzen dugun plasma kopurua handiagoa da".

Sustapen arduradunak azaldu du geroz eta handiagoa dela plasma beharra, eta ez bakarrik EAEn: "Plaketa edo globulu gorrietan autosufizienteak gara, baina plasman ez. Oraindik atzerritik ekarritako plasma behar dugu, gero, plasmari esker egiten diren sendagai horiek guztiak lortu ahal izateko eta ospitaletako farmazien bidez banatzeko. Europako proiektua da", dio. Ahal duten heinean, autosufizientziara heltzea dute helburu "erraza ez" izan arren.


Plasmaferesi-saioa Arrasateko Kulturateko Biteri gelan ekainean. IÑIGO BIAIN

### Hilean bi ateraldi

Plasmaferesiak puntu finkoetan eskaintzeaz gain, "herri handietara" zabaltzea erabaki zuten, eta dagoeneko EAEn zazpi herritan eta enpresa batean egiten dituzte ateraldiak. Otsailean hasi ziren Arrasateko Kulturaten eta irailean bertako ospitalera lekualdatu zuten: "Hasieran, Arrasateko Udalarekin, eta, ondoren, Debagoieneko OSIarekin hitz egin genuenean berehala eman ziguten baiezkoa. Zegoen beharra ulertu zuten, eta hasieratik dena erraztu ziguten".

Aldiro bi makina ekartzen dituzte eta goizean sei emaile hartzen dituzte hiru txandatan eta arratsaldean beste horrenbeste. Hileko bigarren eta laugarren martitzenetan izaten dira oraingoz hitzorduak, baina Elorzak aurreratu du etorkizunera begira badutela asmoa makina finkoak ekartzeko, nahiz eta astean pare bat aldiz erabili: "Momentuz zer nolako eskaera dagoen begira ari gara, eta horren arabera egokitzen joango gara". Ateraldiak 30-40 minutu irauten du. Gainera, plasma "azkar" berreskuratzen denez, hilabete baino ez du itxaron behar emaileak hurrengo saiorako; hortaz, hilean behin egin dezake dohaintza.

**URRIAREN 24AN IZANGO DA HURRENGO SAIOA; HITZORDUA AURREZ HARTU BEHAR DA**

Sustapen arduradunak azaldu ia edozein pertsona izan daitekeela egokia plasma emateko, baita dagoeneko odol-emaileak direnak ere: "Egia da zain egokiak izan behar direla. Estuak badira edo ezkutuan badaude, litekeena da plasma ezin ematea. Dena den, medikuak hartzen du erabakia".

### Hitzorduak aurrez

Datozen hitzorduak urriaren 24an, azaroaren 14an eta 28an, eta abenduaren 12an eta 26an izango dira, eta urtarrilean ere jarraitzeko asmoa dute. Beharrezkoa da aldez aurretik hitzordua hartzea. Interesa duenak informazioa lor dezake plasmaferesi egunetan Arrasateko ospitalean, herrietan jartzen dituzten odol-ateratze autobusetan edota 945 00 78 78 telefono zenbakira deituta.

# "Euskalgintza berpizteko gogoz dagoela ikusten dugu"

**IBON LEIBAR** EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-EKO KIDEA

Euskal Independentiston Topaketak egin dira Villabonan

**I.A.A.** BERGARA

Joan den asteburuan egin dira Villabonan Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldeak antolatutako Euskaltzale Independentiston Topaketak. Lehen edizioaren balorazioa egin du hango kide Ibon Leibar bergarararrak.


Ibon Leibar, Bergaran. TXOMIN MADINA

**Topaketen ze balorazio egin duzue?**

Oraindik balorazio ofiziala ez dugu egin, baina jaso dugun *feedback*-agatik oso gustura gaude. 160 lagunek eman zuten izena egun osorako. Uste dugu 250 lagunetik gora egon ginela egun osoko ekintzetan.

**Helburuetako bat zen EHE berriro ere plazara ateratzea. Lortu duzue?**

Uste dut baietz, baina ez asteburuan soilik. Topaketak egiteko egin dugun bidea –aurkezpenak, elkarrizketak...– ere ona izan da. Erakusleihoa zabaltzen duzu, eta leku gehiagotara heldu gara. Kontaktu berri pila egin ditugu, toki ezberdinetara heltzeko parada eman digu. Saiatu gara hori bilatzen.

**Norbanako eta eragileekin elkartu zarete. Nolakoa da euskalgintzaren egoera?**

Berriz pizteko gogoarekin dagoela uste dugu. Hamarkada baxutik dator, baina belaunaldi eta ideia errelebo bat egon da euskalgintzako talde askotan. Orokorrean, ikusten dugu esnatzeko ordua dela. Soziolinguistika emaitzetan ikusten da euskararen erabilera jaitsi dela. Ikusi dugu badagoela indarra eta gogoa. Gure lehen plana da guztiak norabide berean lanean jartzea. Hurrengo hamarkadetan tokatuko da gaur egungo gizarte ereduan asmatzea.

**Euskararekin batera independentzia jarri duzue erdigunean. Ze hausnarketa egin duzue?**

Independentziak euskararen bizirautean duen garrantziaz hausnartu dugu. Estatu batek indarra ematen dizu legeak egiteko, baina baita betearazteko ere. Gure kasuan ba... Independentzia eta euskara eskutik helduta emaitza hobeak eman ditzake. Hala ere, mahai-inguruan egindako hausnarketa bat izan zen estatu barik bizirauten ari garela, eta horrek baduela meritua. Ezin dugu ezer bermatu, baina eusten ari gara.

**Hurrengo ediziorik egongo da?**

Bi urtetik behin egiteko asmoa daukagu, eta tarteko urtea erabiliko dugu topaketetan egindako hausnarketak betetzeko.

## Gazte Topagune Sozialista egingo da hilaren 13 eta 14an

Gazte Koordinadora Sozialistak eta Ikasle Abertzaleakek antolatu duten Gazte Topagune Sozialista urriaren 13an eta 14an egingo da Atarrabia eta Burlata artean. Formakuntza politikoa eta aisialdia jasotzen ditu egitarauak, eta horien bitartez komunitate politikoa indartu nahi dute Gorka Etxabe GKSko Deba bailarako kideak azaldu duenez: "Helburu nagusia da milaka gazterendako espazioa izatea eta formazio politikorako eta eztabaida politikorako gunea izatea". Hasiera batean lau eguneko egitaraua prestatu bazuten ere, moldatu beharra izan dute Etxaberen esanetan, "EH Bilduk eta Sortuk ezarritako beto batengatik".

Era berean, topagunean parte hartzeko deia egin die gazteei "aisialdirako eta komunitate politikoa indartzeko aukera paregabea delako".



## ZABALIK

**MONIKA MADINABEITIA MEDRANO**

# OMG!

FYI, meet batean zeudela, briefing-arekin, batek aprobetxatu zuen Whatsapp bat bidaltzeko. Gaien first look-aren ostean ere gmaila kuxkuxeatzeko denbora eman zion. Beste aldean proiektu berria ezin zutela affordatu ari ziren esaten eta berak nahiago, kontu horiei kasu egin baino, jendearen outfitetan fijatu. Iruditzen zitzaion oso random-a zela batzuen estiloa.

Halako batean, oso maker-a zen batek hartu zuen hitza eta proposatu bere FabLabean workshop bat egitea; nahi zuela gaurko gazteak transformer eta changer-ak izatea eta ondo etorriko litzaiekeela horrelako training-a. Uste zuen celebrity edo influencer batekin hypeatzea ondo legokeela, wow efektua sortzeko. Horrelakoetan ere BFFak egiteko aukerak sortzen zirela eta noizbait ere crushen bat ere egoten zela. Haterrak, aldiz, ekidin egin behar zituztela bai ala bai.

**USTE ZUEN CELEBRITY EDO INFLUENCER BATEKIN HYPEATZEA ONDO LEGOKEELA**

Denek adostu zuten win-win-a zela eta UrbanHuberako ere egokia. Networking-a sustatzeko ere balio zuela. Crack bat zela esan zioten. Denek, batek izan ezik: beretzat guztia oso fake zen eta smartphonean chateatzen ibili zen bitartean, Facebooken jendea tageatzen eta trending topic-ak posteatzen. Online zenez bilera, ez zelakoan igarriko. Momentu batean ia selfie bat ateratzear egon zen, baina norbaitek bodyshaming-a egingo ziola-eta, moztu egin zen. Berak likeak bakarrik nahi zituen, feedback positiboa. Horretarako zuen kontratatuta personal shopper bat. Coach bat ere bazuen, beti bidaiatzen zegoena. Kobratzen zuenarekin, hegazkinean business joateko moduan! Baina ranking-ean onena zela-eta, azkenean IRL, bere background-arekin, FOMOrik ez zuen nahi.

WTF! Juan Felix eta alike, ez baduzue ezer entendiru, egon trankil. Gaur egungo hizkera cool-arekin, TBH, nik ere IDK zer idatzi dudan gaurkoan! LOL!

THS eta TTYS!

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE**



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Frakasoaren ederra

**IÑIGO ARANBARRI**

'BERRIA'-N ARGITARATUA

**HTTPS://LABUR.EUS/XULDE**

Erretiroa hartu zuenetik, Harkaitz Canoren ipuindegi zoragarri hartan bezala bizi da laguna, beti oporretan. Alabarekin doa orain, putzu handiaren bestaldera. Ozeano Bareraino lehenbizi, barnerago gero, aspaldi handian etxea eta familia atzean utzita artzain joandako haien ondorengoekin egoteko.

Jakinki garai batean han ibilia naizela, hitzordua jarri dit. Abantatu aurreko urduritasuna du begietan, jakin nahi du zer egitea daukaten Idahoko familiarekin elkartu aurretiko astebetean. Berbetan hasi orduko, Alcatrazeko kartzela bisitatzeko sarrera hartua dutela aitortu dit. Jakin nahi du, zer gehiago. Errazegi irristatu zaizkit: Chinatown, City Lights, Vesuvio…

Izan nintzeneko gida ekarri diot, baina ez fidatzeko batere. Urte asko da, eta bi gauzatan behintzat, ez du harriak besteko baliorik paper-troko orri maiztuak. Ikusgaiak hantxe jarraituagatik, majo aldatuta egongo dira ostatuen, garraioen eta sarreren prezioak. Eta haiei buruzko aipuez, zer esan. Auskalo noren esku dauden orain, lehen bikaina zena zer ote da egun.

Zain dago dendan enkargatu duen gida ekar diezaioten. Bisualagoa omen da. Ez larritzeko diotsot. Bertan agertuko zaiola zer ikusi, halako top bat, errua sentitzeraino guztietara heltzen ez bada. Hala da gaur egun. [...]

Jakin dut galdetuko didala. Eta Alcatrazera, batere ez orduan? Nire gidan ez zuen jartzen ezinbesteko bisita zenik, diotsot. Horrexegatik. Hau irakurtzen badu orain jakingo du aitortu ez diodana. Portu inguruan gora eta behera, tixerta jantzita zebilen hamaika turista, paparrean zutela: "Ni ere egona naiz Alcatrazen". Aski izan nuen frakasoaren besoetara itsu-itsuan jauzi egiteko.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.500 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

# GUTUNAK

## Hau onartzen badugu...

**JUAN MARTIN ELEXPURU**
BERGARA

Izaten dira notiziak jarlekutik altxarazten gaituztenak. Pozez, harriduraz edo amorruz. Azaldu beharrik ez zein arlotakoa den hurrengoa. Teleberriak dio laster hasiko dela udazkeneko txertaketa kanpaina. Iragarle, Euskadiko Osasun kontseilaria, atzean *Osasuna, Munduko Ondasuna* esaera zaharra dakarren kartel handi batekin. COVID-19aren eta eta gripearen aurkako txertoak ipiniko zaizkie sei hilabetetik bost urte arteko umeei eta hirurogei urtetik gorako nagusiei; azken hauei bosgarren ziztada. Nagusiek erabaki dezakete zer egin. Umeek ez. Askori odola irakiten jartzen zaigu horrelakoen aurrean, eta mila argudio, datu eta ondorio kaltegarri datorkigu ahora. Baina bego horrela. Esaldi bakarrarekin laburtuko genuke sentipena: hau onartzen badugu, dena onartuko dugu.

## Suizidiotik urtebetera

**JOSU GARITAONANDIA**
BERGARA

Gertaera gogorrak bizitza ikusteko era aldatzen dizu, abestiak entzuteko era ere bai, beste esanahi batzuk azalarazten dizkizu.

Adibidez, Hertzainak taldearen *ez dira betiko garai onenak*... Aitortzen dut ohartu gabe pasa direla nireak.

Edota Mocedadesen hau: *¿Dónde estás, corazón? No oigo tu palpitar, es tan grande el dolor, que no puedo llorar, yo quisiera llorar*... Ariman dudan min galanta ateratzen laguntzen dit; Rozalen-en *Agárrate a la vida* abestia suizidioen errealitate gordinera asko hurbiltzen da: *Aunque no entienda, me quedo a tu lado y apago la voz. A veces, la simple presencia es la mayor comprensión;* Olaia Intziartek *Zure miña* abestian esaten du: *Zer sufritu duen hemen ez egotea erabaki duenak*... Gaiaren nondik norakoak garbi adierazten du.

Eskerrak eman nahi dizkizuet era batean edo bestean pazientzia galantarekin hor egon zareten guztiei, eta besarkadarik beroena itsasoko ura ekarri didazuenei, guri laguntzeko gehiago ezin duzue egin eta.

## Presentismoa gehi populismoa

**BALEN TRAMON**
ARRASATE

*"Etorri ziren. Beraiek Biblia zuten eta guk gure lurra. Eta esan ziguten: Itxi begiak eta errezatu. Eta begiak ireki genituenean beraiek zuten lurra eta guk Biblia genuen"* (Eduardo Galeano). *https://labur.eus/AiMtY*

Zorionez, une honetan gobernu aurrerakoien olatu berri bat ari da indartzen Hego eta Erdialdeko Amerikan. Kepa Sebal-ek, ordea, irailaren 22ko bere bigarren gutunean, Morales, Petro, AMLO, Maduro eta antzerako presidente ezkertiarrei, populistatzat hartzeaz gain, beraien herrietako egoera kaxkarren arduradun izatea leporatu zien. Agian, beretzat Batistak, Pinochetek, Videlak, Somozak, Carlos Andres Perezek –PSOEko *señor X*-en lagun mina–, Bolsonarok, Alvaro Uribek edo Bush aita-semeek, Trumpek, Bidenek eta zerrenda luze bateko "demokrata ongileek" ez dute arazo endemikoen inolako erantzukizunik. *https://labur.eus/U2GzS*

AEB Anaia Handia, Europar Batasuna, multinazionalak, NDF, NATO... saiatzen dira mundua hobetzen, estatu-kolpe edo inbasioen bidez baldin bada ere miseria sozialak gainditzen, baina hain ezjakin diren herri atzeratu horiek ez daude prest, ez dira beraien eskuzabaltasuna ulertzeko gai, ezta?

Oharra: Bi urte barru Generalisimoaren heriotzaren 50 urte beteko dira. Igaro dira nahiko urte presentismoa alboratu eta "bere garaiko" pertsonaia historiko bezala besterik gabe onartzeko ala beste 50 urte itxaron behar da oraindik? *https://labur.eus/1pTqL*

## Itsaso bare?

**ARANTZA OTADUY**
ARRASATE

Uda honetan harritu egin nau Gipuzkoako barnealdea bisitatu duten turista batzuen nazionalitateak: danimarkarrak, zeelandaberritarrak, tanzaniarrak, japoniarrak... Jada ez dira soilik Madrilgo, Kataluniako eta Valentziako turistak gure lurraldearen ontasunez gozatzera datozenak. Ez eta penintsula iberikoaren hegoaldeko beste leku batzuetarako bidean hemendik pasatzeko ohitura zuten frantsesek eta britainiarrek ere. Ekainaren amaieran sumatzen zen uda garaian bisitari olatu handi bat iritsiko zela Gipuzkoara, baina ezin nuen imajinatu uztaila eta iraila bitartean aurkitu nuen turista tsunamia.

Gipuzkoako barnealdea bisitarientzako erakargarritasun ugari eskaintzen dituzte eskualdeez osatuta dago. Eta, naturaz, kulturaz eta gastronomiaz gozatzeko leku aproposa da. Badakit ez direla asko turismotik bizi diren Debagoieneko bizilagunak, eta, hala ere, erraztasunak eman behar dizkiegu beren negozioak garatzeko, haiek baitira gure lurraldeko enbaxadorerik onenak. Eta horrek mesede egiten die gure produktuei, gastronomikoei zein industrialei. Joera nabaria da, klimagatik, bizi-kalitateagatik, turismo-eskaintzagatik, gero eta turista eta bisitari gehiago etorriko dira Gipuzkoara.

Hori horrela izanik, ondo legoke:

-Mahai sektorialak antolatzea; Debagoieneko eragileen arteko lankidetza eta kolaborazioa sustatzeko eta herri handienak txikienekin solidarioak izateko.

-Uda garaian irekita egoteko aukera ikusten duten negozioei laguntzea horretarako aukera izan dezaten.

-Ostatu-zerbitzuak egoera ezin hobean mantentzeko hobariak eta dirulaguntzak sortzea.

-Abuztuan gure herrietako kultura agendak mantentzea, ez bakarrik bisitari eta turistengan pentsatuz, batez ere Debagoienean gelditzen diren herritarrak kontuan hartuz.

Herritarrok onartu beharko dugu turisten joan-etorri hori etengabe haziko dela, uhina goraka doa, eta orain gure esku dago modu kontzientean eta ordenatuan artikulatzea, Debagoieneko herritarren eskubideak murriztu ez daitezen. Turistekin bai, baina gugan eta gure bizi-kalitatean pentsatuta.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**



# Udazken betea dute AEDn, urteurrena borobiltzeko

40. urteurrena du aurten Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak eta, udaberriko erakusketaren ostean, ekintzaz betetako udazkena prestatu dute urtemuga ospatzen jarraitzeko asmotan; 'Ni eta nitarrak' bakarrizketak irekiko du egitaraua, hilaren 22an

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Ekainaren 1ean abiarazi zuten AEDren 40. urteurreneko egitaraua, *AED, 40 urte Arrasate euskalduntzen* erakusketarekin. Orain, udazkenarekin batera, "kultura eta jaia ardatz izango dituen ekintza sorta" aurkeztu dute. Lau hitzordu nagusi izango ditu udazkeneko egitarauak, eta *Ni eta nitarrak* bakarrizketa saioaren estreinaldia izango da horietako lehena. AEDren enkarguz Maria Oses arrasatearrak idatzitako lana da, "arrakasta helburu duen jendarte honetan txarto moldatzen den pertsonaia" batean oinarritutakoa. "Arrakasta ezaren aurrean, *mediokritatearen* xarma deskubritu eta hartaz gozatzen ikasten ari den pertsonaia da", azaldu dute AEDtik. Iholdi Beristain aktoreak gorpuztuko du pertsonaia hori, eta Juan Arzamendi Musika Etxean estreinatuko dute emanaldia, urriaren 22an, 19:30ean. Sarrerak salgai daude dagoeneko, zazpi eurotan, *Arrasate.eus* webgunean. Estreinaldiaren ostean, Euskal Herrian zehar bira bat egingo dute antzezlanarekin.



AED elkarteko hainbat kide, urteurreneko egitarauarekin. MIREN ARREGI

### Azaroan, hiru emanaldi

Egitarauarekin jarraitzeko, "puntako sortzaileak" dituzten hiru proposamen prestatu dituzte azarorako. Batetik, azaroaren 3an, 19:30ean, literatura emanaldi musikatua egingo dute Juan Arzamendi Musika Etxean, GOIENArekin lankidetzan, eta Joseba Sarrionandia eta Joxe Mari Iturralde idazleek, Anne Etchegoyen abeslariak, Iñar Sastre musikariak eta Olatz Prat kazetari eta musikariak hartuko dute parte ikuskizunean. Sarrerak dagoeneko salgai daude AEDko bazkideentzat eta Goienakideentzat, 7 eurotan, udal webgunean. Halaber, urriaren 20tik aurrera edonork erosi ahal izango ditu, 10 eurotan.

**GOI MAILAKO LAU EMANALDI EGINGO DITUZTE ETA AZKEN JAI BATEKIN ITXIKO DUTE EGITARAUA**

Azaroaren 8a, berriz, gogoetarako baliatuko dute, Kulturateko areto nagusian 19:00etan hasita egingo duten proiekzio eta solasaldiarekin. Lehenik, Lanartea elkarteak ekoiztutako *Loreak belaunetan: kulturaren zazpi ahots gazte* dokumentala proiektatuko dute eta, ostean, euskal sortzaileen egoeraz eta lan baldintzez gogoeta egingo dute, Eneko Barberenak gidatuta, Lanartea elkarteko Amagoia Gurrutxagarekin eta dokumentalean agertzen den Oihana Arana bertsolari eta idazlearekin.

Azaroko azken saioa *Hitzen ahairea. Zeri kantatzen diogu euskaldunok?* hitzaldi musikatua izango da, Gotzon Barandiaran idazleak eta Rafa Rueda musikariak eskainiko dutena, hilaren 23an. Kulturolan egingo dute, Udal Euskaltegian, 19:00etan, eta sarrera doakoa izango den arren, aurrez izena ematea komeni da, *aed@aedelkartea.eus*-era idatzita. Hainbat galdera erantzuten saiatuko dira saioan, esaterako, hauek: "Zelan kantatu dute gure idazle eta musikariek Euskal Herria? Zein eragin (izan) dute idazle eta musikarien artean sortutako kantek euskaldunon imajinarioan?".

### Azken jaia, abenduaren 2an

Azken jaiarekin itxiko dute egitaraua, eta, azaldu dutenez, aurrerago emango dituzte jai horren inguruko xehetasunak. "Edozelan ere, aurreratu dezakegu goizetik gauera egongo dela zer gozatu. Tartean, baba-jana Uarkape frontoian, umorez eta musikaz borobilduta".

### Topagunearen kongresua

Egitarautik harago, aipatzekoa da Euskaltzaleen Topagunearen hirugarren kongresua Arrasaten egingo dutela, azaroaren 18an, Juan Arzamendi Musika Etxean. "AEDrentzat ohorea da euskara elkarteen mugimenduaren hurrengo urteetarako bide-orria zehaztuko den kongresua herrian hartzea, zer eta elkartearen 40. urteurrenean".

## EAJ kritiko azaldu da Udal Gobernuaren jardunarekin

Udal tasen eta zergen "justifikatu gabeko igoera" edota batzordeen antolaketa kritikatu ditu

**E.A.B.** ARRASATE

EH Bilduren eta Elkarrekin Arrasateren Gobernuaren lehen 100 egunak baloratzeko agerraldia egin dute jeltzaleek. Batetik, tasak eta zergak %4 igo izana kritikatu dute. "Igoera hori justifikazio argirik gabe egin da; izan ere, Udala 'zero zor' egoeran dago eta diruzaintzako soberakin erabilgarria 4.500.000 eurokoa da", nabarmendu dute.

Era berean, batzordeen antolaketa ere salatu dute. "Lehenengo 100 egunetan ez da Hezkuntza, Belaunaldiartekotasun eta Kirol batzorderik deitu, eta Euskara Batzordearen kasuan, bilera bakarra bertan behera geratu zen deialdiaren erdian, batzordeko presidentea, EH Bildukoa, ez zegoelako bertan. Batzordeen egungo funtzionamenduak hobekuntza esanguratsua eskatzen du".

Horrez gain, plan estrategiko falta ere deitoratu dute jeltzaleek. "Gobernua joan den agintalditik abian zeuden proiektuak amaitzera bideratu dute, orain arte ez dute proiektu berririk hasi. Ez dakigu zein izango den Gobernuaren plan estrategikoa, oraingoz ez baitugu horren berririk jaso". Bide horretan, "elkarlanerako prest" azaldu dira.

## OHARRAK

### 1942an jaiotakoak

Azaroaren 11n elkartuko dira. Izadi belar-dendan eman beharko da izena (Seber Altube plaza, 8).

### Santamasak

Garibain eta Kontzezinon kaleko salmenta egiteko lizentziak emateko agiria onartu du Udalak. Azaroaren 6ra arte egongo da izena emateko aukera.

NIRE USTEZ



**JOSU ZUGASTI**

## Gora borroka palestinarra!

Ez nago ados eskuak garbitzea beste helbururik ez duen pazifismo abstraktuarekin, palestinarrek eskubidea dutelako euren sufrimenduari indarrez erantzuteko; jakina baietz.

Egunero hildakoak sufritzen dituzte palestinarrek, egunero jasan behar dute euren lurren eta iturburuen lapurreta, egunero husten dituzte palestinarren etxeak kolono juduei emateko, egunero zabaltzen dituzte NBEk mila bider gaitzetsitako asentamenduak palestinarren lurraldean, egunero umiliatzen dituzte soldadu eta polizia sionistek, egunero jasan behar dute herritartasun barik bizitzea okupaziopean. Israeldar kartzelak milaka preso politikoz beteta daude, tartean ehunka adin txikiko, helduak balira bezala epaituak tribunal militarretan, eta inguruko herrialdeetan milioika palestinar bizi dira errefuxiatu kanpalekuetan.

Europa burgesak isilik dirau 75 urtez luzatu den basakeria horren aurrean, baina asaldatu egiten da miliziak Gazatik irten eta behingoz eraso bat egin dutenean. Gauza bakarra dago esateko: gora palestinarren borroka eta boikota Israeli.

arbolapeta
arrasate
beinke

# Bibliotekari balioa eman gura dion egitarau oparoa

Bibliotekaren Eguna da urriaren 24a eta, urtero moduan, aitzakia baliatuta, egitarau zabala antolatu du Arrasateko Udal Bibliotekak; halaber, aldarrikatu dute liburutegia ez dela biltegi soil bat, komunitatea ehuntzeko eta herria saretzeko gune bat baizik



Anonyme Popular emanaldia, Oñatiko gaztelekuan, aurten. GOIENA

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

*Komunitatea ehunduz* lelopean ospatuko dute aurten Bibliotekaren Eguna, eta hori da, hain zuzen, Udal Bibliotekako zuzendari Asun Agirianok nabarmendu gura izan duena. "Liburutegia ez da liburuak gordetzeko biltegi bat, baizik eta pertsonak elkartzeko gune bat. Herritarren arteko elkarrizketak sustatzeko eta kultura sustatzeko egiten dugu lan, eta antolatu dugun egitarauak ere helburu hori izango du", dio.

Bide berri bat ireki gura dutela gaineratu du Agirianok, "beste mota bateko tailerrak" antolatuz, "ez dadin izan beti literatura edota liburuekin zerikusia duena". Bide horretan, bi ekintza berezi egingo dituzte Bibliotekaren Egunaren baitan.

Batetik, urriaren 16an hasita, haurrentzako filosofia tailerra egingo dute, 8 eta 11 urte artekoei zuzenduta. "Moda-modan dagoen jarduera bat da, azken batean, filosofia modu ludiko batean erakusten duena. Ikastetxe askotan praktika hau bultzatzen dute, pentsamenduak suspertzeko jolasak eginez. Filosofia hitz potoloa da eta batzuei beldurra eragingo die, baina jolastea da, finean", azaldu du Agirianok. Lau saio egingo dituzte, Kulturaten bertan, urriaren 16an eta 30ean eta azaroaren 13an eta 27an, 17:00etan hasita. Jakinmin elkarteko bi kidek gidatuko dituzte tailerrak.

Bestetik, Santa Marinako bibliotekan, Steam tailerra egingo dute, familiei bideratutakoa. Urriaren 20an izango da hori, 17:00etan hasita. "10 eta 14 urte arteko gazteentzat da eta heldu batekin etortzea eskatzen zaie. Helburua da gazteak zientzia eta teknologiara hurbiltzea, senide eta gazteek teknologiarekin esperientzia positiboa izan dezaten". Deustuko Unibertsitateko irakasle Mari Luz Goenagak gidatuko du tailerra, eta ordu eta erdiko saioa izango da. Hiru jolas egingo dituzte tailerrean.

**JARDUERETAN PARTE HARTZEKO, IZENA EMAN BEHARKO DA, BIBLIOTEKAN EDO 'ARRASATE.EUS'-EN**

### 'Anonyme Popular', hilaren 20an

Urriaren 20an, era berean, *Anonyme Popular* emanaldia egongo da Kulturateko areto nagusian, 20:00etan. Igor Elortza bertsolari eta idazlearen eta Rafa Rueda musikariaren proiektua da, inprobisazioa eta aurrez landutakoa uztartzen dituena, eta "guztiz gomendagarria" dela azaldu du Udal Bibliotekako zuzendariak. "Otsailean Oñatin egin zuten emanaldiaz gozatzeko aukera izan nuen, eta harrezkero ibili gara ikuskizun dotore hau Arrasatera ekarri nahian". Hala egin dute eta, beraz, arrasatearrei dei egin diete aukera baliatzeko. Doakoa izango da.

### Giza bibliotekan, sei errealitate

Urriaren 24an, giza biblioteka egingo dute bibliotekako hemerotekan, 18:00etatik 20:00etara. "Bibliotekaren Egunean bertan egingo dugu, eta indar berezia jarri dugu ekintza honetan. Arrasatearren bizipenak eta esperientziak jaso gura ditugu, ez bakarrik liburuetan daudenak, baita inon jaso gabekoak ere". Modu horretan, elkarrizketa irekiak egingo dituzte sei herritarrekin, askotariko gaiak landuz: liztor asiarrarekin dagoen arazoa, transexualitatea, ekintzailetasuna, saharar errefuxiatuen errealitatea, autismoa eta zuhaitzen egoera.

### Haurrentzako poesia ere bai

Egitaraua borobiltzeko, azaroaren 2an, *Poltsikorako poemak* poesia kontakizuna eskainiko dute Saroa Bikandik eta Amaia Egidazuk, 4 urtetik gorakoentzat. Kulturateko areto nagusian izango da, 18:00etan.

Jarduera guztietan parte hartzeko, izena eman beharko da aurrez, eta bi aukera egongo dira horretarako: Udal Bibliotekan edo *Arrasate.eus* webgunean.

## OHARRAK

### Ganberock jaialdia zapatuan Taupan

Galerna eta Crap taldeek kontzertua egingo dute, 19:00etan.

### Munlet bikotea, urriaren 19an, gaztetxean

Kooltur Ostegunen baitan, Munlet bikoteak kontzertua egingo du urriaren 19an, 22:00etan. "Rockari sintetizadorea batzen eta esperimentatzen, elektronika oso minimalista eta ganberroa egiten Euskal Herrian aitzindariak izan ziren", dio Kooltur Ekintzako Iker Barandiaranek. Sarrera zazpi euro da.

### 'Hablemos de sexo, pensemos con-ciencia'

Jaione Fernandez de Jauregik eta Natalia Urteagak hitzaldia egingo dute urriaren 19an, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian.

DEBAGOIENEKO
GREMIOAK

AROZTEGIAK
AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

LOREZAINTZA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA
EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.




Bigarren urtez Maritxuri lore eskaintza egin dion kuadrilla. ARGAZKIAK: ANDREA GONZALEZ, AITOR AGIRIANO ETA IMANOL SORIANO



Maritxu Kajoi komisioko kideak eskapularioak saltzen.



Kuadrilla dotore-dotore jantzita Maritxu Kajoi eguna ospatzen.



Gurasoak eta seme-alabak *photocall*-ean argazkia ateratzeko prest.

# Zuntza duen etxe berria estreinatu du Maritxuk, 45 urteren ostean

Zuntz optikoa heldu da Maritxuren bizitokira. Egubakoitzetik, egungo teknologia berrietara egokitutako kajoi koloretsu berria du Ama Birjinak. Iturriotzen zuntzik ez dutenekin konexioa partekatzea ere erabaki zuen, miraria eginez

**Aitor Agiriano** ARRASATE

Dotoreziak jantzi zuen Arrasate pasa den egubakoitzean. Goizean goizetik ardo koparekin topa eginez hasi zuten arrasatearrek txikiteroen zaindaria den Ama Birjinaren festa eguna; eta, tradizioari eutsiz, lore eskaintza bat baino gehiago jaso zituen Maritxuk: "Txirrindulariok errepidean zaintzeko eskaria egin diogu; zendutako laguna gogoan izan dugu, bigarren urtez egin dugun lore eskaintza honekin; lehenengoz ekarri dizkiogu loreak baina kuadrillan ohitura bihurtzea gustatuko litzaiguke".

### Giroa bero-bero

Bisita ugari izan zituen Maritxuk Herriko Plazan. Izan ere, askotariko argazkiak ateratzera hurbildu ziren herritarrak Maritxuren kajoi azpira; eta, nola ez, Goienak jarritako *photocall*-era ere gerturatu ziren klik batean argazkia ateratzera.

Maritxu Kajoiko eduki gehiago ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Unerik beroena, baina, Maritxuk miraria egin zuenekoa izan zen, lepo bete zen Herriko Plaza. TAO sistema kentzea, iturrietatik ardoa ateratzea, azaroaren 30eko greba feministarekin lotutako miraria egitea edota urtean zehar festa egun gehiago jartzea eskatu nahi izan zioten herritarrek, besteak beste. Dena den, koloretsua eta Internetera-ko konexioa duen etxe berria estreinatu du aurten Maritxuk.



Familia argazkia ateratzen, Goienako *photocall*-ean.



Hirukotea, Goienaren *photocall*-ean.



Maritxuk miraria egin aurreko unea.



Familia argazkia ateratzen.



Lagunak umoretsu Goienaren *photocall*-ean.




Lagun taldea *photocall*-ean argazkia ateratzen.



Neskatila dotore, Maritxu Kajoi azpian.



Neska-mutilak dotore txosnagunean.



Loreak saltzen aritu ziren haurrak, *photocall*-ean.



Lagunak *photocall*-ean argazkia ateratzen.




Azaroaren 30eko greba feminista orokorraren aldeko talde argazkia, txosnagunean.



2022ko kaleko margo lehiaketan, margolaria lanean. A.E.G.

# Urteroko hitzordua dute bihar margolariek

Euskarriak zigilatuko dituzte 08:30etik 10:30era bitartean, udaletxean, eta lanak entregatu beharko dira 13:30erako. Sari banaketa ekitaldia izango da 15:00etan gazteena eta 15:15ean nagusiena. Irabazleak 700 euro irabaziko ditu

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Urteroko zita izango dute bihar, urriaren 12an, margolariek Aramaion. 32. Kaleko Margo Lehiaketa egingo dute.

Aurten aldaketa egongo da sariak banatzeko orduan; arratsaldeko lehen orduan izango da, hain zuzen, 15:00etan. Lehenengo umeen kategoriako sariak banatuko dituzte eta ondoren, 15:15ean, nagusien kategoriakoak.

**Estilo libreko lehiaketa**

Aramaioko lehiaketan edonork parte har dezake. 08:30etik 10:30era bitartean zigilatuko dituzte euskarriak udaletxean, egunean bertan. Margotzeko teknika eta estiloa librea izango dira. Margotzeko beharrezkoa izango duten guztia parte hartzaileek eurek eraman beharko dute. Gaiari dagokionez, librea izango da, baina Aramaioko udalerrian margotutakoak izan beharko dute, aire zabalean, egunean bertan; eta herriko irudietan oinarritu beharko dira.

Lanak aurkeztu beharko dira sinatu barik, 13:30erako, Aramaioko udaletxean.

**Sariak bi kategoriatan**

Bi kategoria bereiziko dituzte sariak banatzerakoan. Alde batetik, 16 urtera artekoak egongo dira, 2007an jaiotakoak barne; eta, bestetik, 16 urtetik gorakoak. Sariak izango dira: nagusien kategorian, irabazleak 700 euro; bigarrenak, 500 euro; hirugarrenak, 400 euro; eta lehenengo aramaioarrak, 150 euro. Gaztetxoen kategorian, aldiz, sariak izango dira materiala erosi ahal izateko txartel formatuan. Lehenengo sailkatuak 150 euroko txartela jasoko du; bigarrenak 100 eurokoa; eta hirugarrenak 50 eurokoa. Parte hartzaile bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du. Epaimahaiaren erabakiaren arabera sariak hutsik gera daitezke.

**IAZ RIKARDO AZKARGORTA BERGARARRAK IRABAZI ZUEN SARI NAGUSIA**

**Erakusketa egingo dute**

Lehiaketara aurkeztuko diren lanekin erakusketa egingo du Aramaioko Udalak: urriaren 20tik 22ra bitartean izango da erakusketa. Nagusien kategorian, saria jasoko duten lehenengo hiru margolanak Udalaren jabego izatera pasako dira, eta Udalak nahi duen erabilera eman ahal izango die margolanei. Behin erakusketa amaitzen denean, gainerako egileek euren margolanak erretiratzeko modua izango dute, urriaren 30era arte. Margolanak jasotzen ez badira, Aramaioko Udalaren ondare izatera pasako dira.

Iazko ekitaldian Rikardo Azkargorta bergararrak irabazi zuen sari nagusia, Etxaguen auzoko ukuilu barruan egindako margolanarekin.



MONTES SOLIDARIOS

## Guztiek gozatzeko mendi buelta

Irabazi asmorik gabeko Montes Solidarios taldeak antolatuta Danborralde eta Durakogain inguruan mendi irteera inklusiboa egin zuten domekan. Joelette aulkian hiru pertsonak –irudikoa– eta barraz lagundurik ikusmen urritasuna duen beste batek mendiaz eta lagunarteaz gozatzeko aukera izan zuten. Eskerrak eman nahi dizkiete elkarteari eta boluntarioei.

### 'Euskaraz nonahi eta noiznahi' kanpaina martxan dute

*Zurekin euskaraz, nonahi eta noiznahi* kanpaina jarri du martxan aurten ere Gorbeialdeko kuadrillak. Eskualdeko mintzalagun eta gurasolagun taldeetan parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrak. Urrian zehar eman daiteke izena bi ekimenetan. Mintzalagun taldeak maiztasun finkoarekin elkartzen diren taldeak dira. Helburua da euskaraz aritzea, lagun-giroan, bakoitzaren ahozko euskara hobetuz. Gurasolagun taldean, aldiz, gurasoak umeekin elkartzen dira; familian egiten diren mintzalagun taldeak dira. Izena emateko idatzi gorbeialdea@topagunea.eus edo euskara@gorbeialdea.eus helbidera.

### Aramaioko azokan postua jartzeko izen-ematea zabaldu dute

Urriaren 28an egingo da aurtengo Erretiratuen Eguneko azoka. Bada, hil bukaeran izango den azokari begira, dagoeneko zabaldu dute postua jarri nahi dutenendako izen-emate zerrenda. Egun horretan postua jarri nahi duten herriko abeltzain edo artisauei deia luzatu diete izena eman dezaten urriaren 17rako, martitzena, udaletxean. Urteko hitzordu garrantzitsuenetarikoa izaten da Aramaion Erretiratuen Eguna. Jende asko batzen duen azoka izaten da; eta ez bakarrik aramaioarrak. Nardeaga kalean goitik beheraino jartzen den azokara bailarako eta inguruko herrietako jende ugari etortzen da.

### KZguneko dinamizatzailearen bisita, astelehenean

Teknologia berriekin lotutako edozein zalantza argituko du astelehenean KZguneko dinamizatzaileak. Astelehenean, urriaren 16an, egongo da dinamizatzailea Aramaioko bulegoan: 16:00etatik 20:00etara bitartean. Aurrez eskatu beharko da hitzordua *Kzgunea.eus/aldez-aurreko-hitzordua* atarian edo 945 062 555 zenbakian.

### Produktu fitosanitarioak erabiltzeko txartela

Arbel kooperatibaren bitartez produktu fitosanitarioak erabiltzeko eta erosteko txartela ateratzeko aukera egongo da. Oinarrizko ikastaroa 25 ordukoa izango da –125 euro–, urriaren 20tik azaroaren 10era, online. Internet bidezko ikastaroa denez norberak ahal duenean konektatzeko aukera izango du. Informazioa 616 001 935 zenbakian.

DEBAGOIENEKO

# OSASUN ZERBITZUAK

**DENTISTAK**

**ADUR HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**DURANA HORTZ KLINIKA**
Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

**GARAI HORTZ KLINIKA**
Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**DIETETIKA**

**BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

**ENTZUMEN ZENTROAK**

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

**KIROPRAKTIKA ZENTROA**

**BIZI KIROPRAKTIKA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

**MASAJISTAK**

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**NEUROLOGIA**

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

**OPTIKAK**

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**ORTOPEDIA**

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

**OSASUN-DIAGNOSTIKOAK**

**UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA**
Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

**PODOLOGOAK**

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

**PSIKOLOGOAK**

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

**PSIKIATRIA**

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Hainbat lagun Loramendiren ibilaldi historikoetako batean. P. BELTRAN DE HEREDIA

# Kurtzebarriko izenak eta istorioak gogora ekarriz

Ixotu! taldeak antolatuta, 'Kurtzebarriko haitzak' izeneko ibilaldi historikoa egingo dute bihar, urriak 12; Herriko Plazatik abiatu (08:15) eta Areantza auzotik gora, Zaraia mendilerroan barrena ibiliko dira toponimia eta han gertatutako pasarteak ezagutuz

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Ixotu! euskara taldeak ibilaldia antolatu du eguenerako, urriaren 12rako. Ikusteko, ikasteko eta gozatzeko mendi buelta izango da, eta lagun eta gidari izango dituzte Loramendi elkarteko Toponimia taldeko Julen Abasolo eta Gorka Madinabeitia. Zaraia mendilerroan barneratuko dira, eta Kurtzebarri mendiari buelta emanez hango parajeak, izenak eta istorioak ekarriko dituzte gogora. 08:15ean elkartuko dira Herriko Plazan, eta ez dago aldez aurretik izenik eman beharrik.

**Bost ordu inguru**

"Galtzear zeuden hainbat toponimia-izen berreskuratzeko lan bat egin du Loramendik. Horiekin batera antolatu dugu ibilaldia, hainbat herritar elkartu –gazte zein heldu–, mendi buelta bat eman eta goiz pasa eder bat egiteko asmoarekin", azaldu du Ixotu! taldeko Peio Uribetxebarriak. Gaineratu du ez dagoela arrazoi berezirik Kurtzebarriko haitzetara jotzeko: "Bista dotoreak daudelako bertatik, ez dago besterik".

2022ko otsailean antolatu zuen azken ibilaldi historikoa Loramendik; orduan, Kortaburu eta Urrexolagarai inguruetara jo zuten. Denbora pasatu da ordutik, eta uste dute jendeak gustura hartuko duela proposamen berri hau: "Gazte mugimenduko kideak espero ditugu, baita Loramendiren bueltako jende helduagoa ere; erabat irekia da. Bost orduren bueltakoa izango da, leku askotan geratuko garelako, baina ez du aparteko zailtasunik ibilbideak". Bukatu aurretik, hamarretakoa eskainiko diete ibiltariei, txabola batean.

**Izen eta istorio asko**

Plazatik Areantza auzora egingo dute Kurtzebarri aldera jotzeko. Tontorreraino igo barik, inguratu egingo dute hori: Ziontza, Kargaleku, Elorretako haitza, eta harkaitz artetik jaitsiko dira. "Elur-zuloa ikusiko dugu, Kabarrixa, askak, Kargalekuko txabolak eta Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bi mugarri ere bai", adierazi du gidari lanak egingo dituen Julen Abasolok, eta gaineratu du: "Harkaitzek izen asko dituzte, eta horien berri emango dugu: Obispoatxa, Narruko atxak, Bekokiaundi, Atxpotolo…"

Paraje askok istorioak ere badituzte, eta horiek gogora ekarriko ditu Abasolok: "Elur-zuloaren bueltan badaude kontuak. Kurtzebarritik labanderan jaisten ginela ere kontatuko dugu; artzainek beti egin izan dutena, orain auzoko jaietan egiten dugu guk. Tontorreko txabolaren alboan beste bat dago erabat erorita, eta horrek ere badu bere istorioa". Eta pertsonaia batzuk aipatuko dituzte: "Malbe dago horien artean. Inguruan ardi gehien izan zituen Bedoñako artzaina izan zen; zelaiek-eta ez zutela jaberik aldarrikatzen zuen eta epaiketa asko izan zituen".

## Ibilbideko zenbait puntu

Ibilbideko puntu batzuk eta ezagutuko dituzten hainbat paraje.

- **Herriko Plaza.** 08:15ean elkartu.
- **Areantza auzoa**. Pinudia.
- **Elur-zuloa.** Elurra gordetzeko lekua.
- **Kabarrixa.** Eroritako etxearen aztarnak.
- **Ziontza.** Kargalekutik Zaraixola aldera dagoen lautada.
- **Askak**. Ura gordetzeko: Arraskabarri, Sanjuaniturri…
- **Malben koba**. Malbe artzainaren izena duen zuloa.
- **Zaraixolako punta.** Parapente zaleek jarrita burdinazko barra dagoen puntua.
- **Haitzak**: Bekokiaundi, Obispoatxa, Narruko atxak, Atxpotolo eta Atxbiribil.

## Greba feministari begira motorrak berotzen hasi dira

Lehen bilera mistoa egin da astean, eta erabaki dute gaia komunikatzen eta sozializatzen hastea herrian

**M.A.** ARETXABALETA
Azaroaren 30erako deitutako greba feminista orokorra antolatzeko lehen bilera mistoa egin zuten astelehenean, eta 25 bat lagun elkartu ziren, besteak beste, mugimendu feministako kideak, gazte mugimendukoak, sindikatutako ordezkariak eta herriko zenbait eragile. Greba horren helburu nagusiak zeintzuk diren azaldu zituzten –joan den asteburuan Hernanin aurkeztutakoak–, besteak beste, zaintza duinaren unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea, zaintza sistema publiko-komunitario bat garatzea, zaintza zerbitzuen pribatizazioa amaitzea eta zaintzeko denborak bermatzea, pentsio duinak ziurtatzea, eta lanen banaketa sexual eta arrazista bertan behera uztea.



Asanbladako kideak lanean. M. ALTUBE

Elkartutakoek zehaztu zituzten azaroaren 30era bitarteko egitekoak, bereziki, gaia komunikatzeko eta sozializatzeko egin beharreko pausoak. Informazioa zabaltzeko hainbat ekintza antolatuko dituzte herrian datozen asteetan, eta lantegi, enpresa eta zerbitzuetako langileekin harremanetan jarriko dira.

### Sortu berri den helduen antzerki taldean lekua dute

Debagoieneko Antzerki Plataformak helduen taldea eratu du Aretxabaletan, eta hori osatu gurako lukete taldekide gehiagorekin. "Jolasen bitartez landuko dugu antzerkia, eta, era berean, euskara eroango dugu oholtzara", horiek direla helburuak adierazi dute plataformako kideek; Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan elkartuko dira, eguenetan. Antzerkiaren harra barruan dutenak animatu gura dituzte taldera gerturatzera eta probatzera. Horretarako, ate-irekiak egingo dituzte urriaren 19an (18:30-19:30), Arkupen.

Euskarazko antzerkia eta arte eszenikoak eragin, indartu eta saretzeko proiektu kulturala da DAP. Edozein argibide gura izanez gero edo izena emateko, hona hemen bideak: *Dap.eus, dantzerkiplat@gmail.com* edo 637 00 39 80 (Eider).

### Idazketa tailerra umeendako Miru sorginarekin

Ipuin bat sortuko dute 4 eta 9 urte bitarteko neska-mutikoek Miru sorgin ezagunak gidatuta; urriaren 18an (18:00) izango da, liburutegian. Jolas dinamikoak erabiliko dituzte irudimena martxan jarri eta barruan duten ahalmena zirikatzeko. Izena aldez aurretik eman beharra dago liburutegian (943 08 10 01); azken eguna hilaren 13a da.

### Mendi-bizikletako martxa egingo du UDAk urriaren 21ean

Aretxabaleta kirol elkarteak antolatutako mendi-bizikletako martxak bi ibilbide izango ditu: luzea (50 km) eta motza (25 km). Izena aldez aurretik –urriaren 18a arte– eman daiteke honako helbide honetan –prezioa: 20 euro–: *Kirolprobak.com.* Egunean bertan ere, urriaren 21ean, eman ahal izango da Herriko Plazan, abiatu aurretik (09:00).

# Ingurumenarekin sentsibilizatzeko xedez

Eskoriatzako Udalak herriko eragile eta hainbat herritarrekin elkarlanean, jarduera ezberdinez betetako programa osatu du Aste Berderako, ingurumena babestearen eta kontsumo-ohitura arduratsuen alde modu aktiboan kontzientziatzeko asmoz

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA
Eskoriatzarrak kontzientziatzeko asmoz, Aste Berdea antolatu du Eskoriatzako Udalak. Egitaraua hasteko, urriaren 16an eta 17an, bide segurtasuneko saioak eskainiko dituzte ikastetxeetan Eskoriatzako udaltzainek. Patinetean eta bizikletan modu seguruan ibiltzeko gomendioak emango dizkiete haurrei udaltzainek. Horrekin batera, urriaren 18tik 24ra bitartean orotariko jarduerak izango dira.

Egitarauko ekintza dibertigarriena urriaren 18an izango da. Izan ere, Tortolis ludotekako gaztetxoak kalera aterako dira gaizki aparkatuta ikusten dituzten ibilgailuei gezurrezko isunak ezartzera. Hala, udaltzainen paperean arituko dira arratsalde batez.



Iaz, erreka garbiketa auzolanean egin zutenekoa. IMANOL BELOKI

**Naturaren balioak aztergai**
Aste Berdearen baitan hitzordu garrantzitsuenetarikoa, berriz, bailara mailan auzolanean egingo den erreka garbiketa da. "Iaz, hogei lagun inguru batu ginen Eskoriatzan egitasmora, eta aurten ere halako taldea batzen bagara ederto arituko gara", adierazi du Saioa Altzuak, Ibarraundiko langileak. Horrez gain, azpimarratzekoa izango da hilaren 20an, Zaldibar antzokian, Unai Pascualek eskainiko duen *Naturaren balioak zertarako balio ote?* hitzaldia. Ingurumen ekonomian doktorea da, eta Erresuma Batuko unibertsitateko irakasle ohia eta Ikerbasqueko ikerlaria eta irakaslea. 20 urte baino gehiagoko esperientzia duen ekonomialari ekologikoa da, eta gizarte-zientziak eta natura-zientziak lotzen saiatzen da, sistema sozioekologiko konplexuak ulertzeko.

**AUTOEN ERABILERA GUTXITZEKO ASMOZ, DISTANTZIEN PLAKAK JARRIKO DITUZTE ZENBAIT TXOKOTAN**

**Energia ardatz, bilera-merienda**
Eskoriatzako Energia Berriztagarrien Komunitateak antolatuta, bilera-merienda egingo da Ibarraundi museoan, hilaren 24an. Eskoriatzan energia komunitate bat sortzearen garrantziaz, eman beharreko lehen pausoez eta abarrez arituko dira.

## Egitarau osoa, elkarlanean

**Urriak 18**
- **17:00** Isun sinbolikoak, Tortolis ludotekan.

**Urriak 19**
- **18:00** Bizikleta garraiobide gisa erabiltzen dutenen arteko topaketak. Ibarraundin.

**Urriak 20**
- **18:00** Unai Pascualen *Naturaren balioak zertarako balio ote?* hitzaldia. 18:00etan, Zaldibar antzokian.

**Urriak 21**
- **10:00** Erreka garbiketa auzolanean, Fernando Eskoriatza plazan.

**Urriak 22**
- **19:00** *Mi pequeña gran granja* filmaren proiekzioa, Zaldibar antzokian.

**Urriak 23**
- **16:00** Herriko txoko batetik bestera oinez, bizikletan, patinetean… neurketak eginda, distantzien plakak jarriko dituzte.

**Urriak 24**
- **18:30** *Eskoriatzan Energia komunitate bat sortzeko lehen pausoak* bilera-merienda. Ibarraundin.



Aitor Larrañaga bisita gidatu batean azalpenak ematen. GOIENA

## Urriko zubirako proposamena: Gatz Museoaren bisita, familian

Aurrez izena eman dutenen bisita gidatuak, euskaraz, 12:00etan; gazteleraz, berriz, 13:00etan izango dira

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA
Debagoieneko Mankomunitatearen Turismo Sailak proposamen ederra antolatu du urriaren 12tik 15era bitarteko egunetarako. Izan ere, *Bizi natura familian Debagoienean* izenburua duen aisialdi programaren barruan, Leintz Gatzagari ere tokia egin diote, eta proposamenen artean dago Leintz Gatzagako Gatz Museoaren bisita gidatua familian egitearen aukera.

Bihar, eguena, *Gatz Museoa familian* bisita gidatua izango da. 12:00etan, euskarazko saioa izango da, eta, 13:00etan, berriz, gaztelerazkoa. "Bisita gidatu bakoitzeko pertsona kopuru muga 20 lagunekoa da, eta oraindik lekua dago izena emateko. Azpimarratu beharra dago haurrak helduekin lagunduta joan behar direla", adierazi dute Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Saileko teknikariek.

**Gatzagako gatzaren historia**
Ordubete irauten duten azalpenek duela milioika urte sortutako gatz-iturburuaren sorrera dute abiapuntu. Handik sortu zen, Burdin Aroan, gatza ateratzeko jarduera ekonomikoa, 1972ra arte iraun zuena. Museoan antzinako prozedura horren berri emango dute, Santa Kolunba ermita, gatz fabrika, lixiba fabrika eta XVIII. mendeko dorlak erakutsita.

**Izena emateko bideak**
Izena ematea beharrezkoa da. Hori horrela, *infoturismo@debagoiena.eus* helbidera idatzi edo 943 79 64 63 telefono zenbakira deitu beharko da. Horrekin batera, informazio gehiago nahi duenak edo bailako gainontzeko proposamenen berri jaso nahi duenak *Turismodebagoiena.eus* webgunean ikus ditzake urriko zubirako plan ezberdinak.

### Gatzaren Eguna urriaren 22an ospatuko dute

Gatzagak 30 urte inguru daramatza gatzari balioa ematen. Produktuari, haren ekoizpenari eta gatz kulturari zabalkundea emateko Gatzaren Eguna antolatzea erabaki zen duela zazpi urte. Gaur egun 0 kilometroko gatza ekoizten da herrian, Eusko Label kalitatekoa, eta, urriaren 22an, Gatz Eguna egingo da.

### ZUZENKETA

Gatzagarrek ere urriaren 21erako deia egin dute erreka auzolanean garbitzeko. Bailara mailan egingo den bigarren erreka auzolanean Debagoieneko herri guztiek hartuko dute parte; guztiek egun berean. Gatzagan beste egun batean egingo zela argitaratu arren, herri guztiek batera egingo dutela jakinarazi dute, asteon, ekimenaren bultzatzaileek. Hala, 10:00etan egin dute hitzordua hilaren 21ean, plazan.



Udalbatza, irailaren 25ean; 2024ko udal tasak eta zergak onartzeko osoko bilkura urriaren 23rako dago aurreikusita. J.B.L.

# %4ko igoera proposatuko du EH Bilduk udal tasetan

Udal Gobernuak hobari berriak ere iragarri ditu herriko komertzioa sustatzeko, eta baita, "kostuen gorakadak" eraginda, %10eko igoera Agorrosin kiroldegiko abonuetan; EAJren ustez "onartezina" da igoera hori: "Datu guztiekin benetako azterketa bat behar dugu"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
Urriaren 23ko osoko bilkuran dira onartzekoak 2024rako ordenantza fiskalak. EH Bilduren Udal Gobernuaren proposamena da igoera orokorra %4koa izatea.

**Igoera, "gastuei erreparatuta"**
Proposamenean hobariak azpimarratu ditu EH Bilduk eta horien artean, bereziki, herriko ekonomia sustatzera bideratutakoak. Besteak beste, milioi bat euro baino gutxiago fakturatzen duten komertzioei hurrengo hobariak eskainiko zaizkie, lehen aldiz: obra lizentzietan, %95eko hobaria; irekiera berri batean, irekiera tasan %95eko hobaria; eta uraren zein zaborraren tasetan, lehen hiru urteetan, %95eko hobaria. Ogasun zinegotzi Aitor Arantzabalek dio "ziur" daudela hobari berri hauek herriko komertzioa indartzen lagunduko dutela.

Bestalde, EH Bilduk iragarri du Agorrosin kiroldegiaren abonuaren eta ikastaroen tasak %10 igoko direla: "Guretzat ere gustukoa ez den arren, igoera gogor horri eusteko tasak ahal den neurrian eguneratu behar izan ditugu kalitatezko zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko". Igoera horrek errenta baxuak dituzten bergararrengan izan dezakeen eragina leundu asmoz, Udalak tarifa soziala eskainiko die hala behar dutenei.

Kostuen gorakadari begira, EH Bilduk honako datu hauek eman ditu: 2021ean, argindarraren gastua 100.000 eurokoa izan zen, eta 2022an, 183.000 eurokoa; gasaren kostua 2021ean 70.000 eurokoa izatetik 191.000 eurokoa izatera iritsi zen 2022an. Era berean, lizitazio berri baterako gastuak 150.000 euro inguru igoko dira.

**UDALAK 100.000 EURO GASTATU ZITUEN DUELA BI URTE ARGINDARREAN; IAZ, BERRIZ, 183.000 EURO**

**EAJ: "Dena aztertu behar da"**
EAJrendako "onartezina" da kiroldegiko abonua eta ikastaroen tasa %10 igotzea: "Proposamena argudiatzeko, argindarraren, gasaren eta pertsonal kostuaren igoerak jarri zituzten mahai gainean, baina ez zuten inolako azterketa sakonik partekatu oposizioarekin; emandako datuak hiru izan ziren, eta oso gainetik. Hala, gaur egun ditugun datu gutxiekin ezin dugu igoera hau onartu; izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoan, erabaki horrek eragin handia izan dezake herritarrengan, eta abonatuetan bajak ekar ditzake".

Mikel Lete bozeramaileak "azterketa sakonagoa" eskatu dio EH Bilduri: "Datu guztiekin benetako azterketa egin behar dugu, eta ondoren erabakia hartu; noski, kalitatezko zerbitzua bermatzeko, Udalak ere bere gain hartu beharko du zama, soberakinak eta beste hainbat baliabide baditu-eta. Aukera guztiak aztertu behar dira".

## Ekitaldi "antikoloniala" bihar Iralaren omenezko monolitoan

Dekolonizatu Bergara taldearen lehen ekintza publikoa izango da; urriaren 12an, Fraiskozuri plazan, 18:30ean

**J.B.L.** BERGARA
Dekolonizatu Bergara taldeak "ekitaldi antikoloniala" antolatu du urriaren 12rako Fraiskozuri plazan (18:30), Domingo Martinez Iralaren omenezko monolitoan: "Kristobal Kolon Amerikara heldu zenekoa ospatzen da, eta ekitaldiarekin, historia ofizialak ahaztu nahi izan dituenak ekarriko dira gogora. Kolonizatzaileen aldetik jatorrizko herriek jasandako hondamendia eta mendeetako egiturazko sakeoa eta arrazakeria salatuko dira; herri kolonizatuak kontuan izango dituen memoria inklusiboagoa eta justuagoa eraikitzeko, Bergaran ere urratsak eman beharraz ohartarazi nahi dugu".

Dekolonizatu Bergara taldearen lehen ekintza publikoa izango da, eta azaldu dute zergatik jarri zuten *Tanborrada bai, estanpa zertarako?* zioen pankarta sanmartinetan: "Danborrada osteko antzerkian San Martin Agirreri egiten zaion gorazarrearen inguruan hausnartzeko helburua zuen". Biharko ekintzara batzeko dei egin diete historia ofizialarekin bat egiten ez dutenei.

## Pegatineroen XXI. topaketa



OIHANA ELORZA

Urriaren 7an Kartzela zaharrean egin zen Euskal Herriko pegatineroen XXI. topaketa, eta hainbat txokotatik etorritako pegatina zaleak elkartu ziren. "Mikro historia asko kontatzen dituzte pegatinek. Altxorra dira", uste du elkarteko Iñaki De Nicolasek; Getxotik etorri zen. Topaketaren ostean, AHTren kontrako erakusketa jarri zuten.

## OHARRAK

**Zumalaberen lanak ikusteko azken egunak**
Joxe Migel Zumalaberen koadroak ikusteko aukera egongo da domekara arte, urriak 15, Aroztegi aretoaren ohiko ordutegian.

**Ikastaroa: lehen sorospenak haurtzaroan**
Hilaren 14an egingo dute, goizez, Martokoko DYAn.

**1942an jaiotakoen ospakizuna, hilaren 28an**
Zumelagan bazkalduko dute (14:30). 13:30ean Egon tabernan elkartuko dira; izena emateko 40 euroko ordainketa egin behar da honako kontu korronte zenbakian, urriaren 18a baino lehen: ES61 3035 0009 1800 9116 3051 (Laboral Kutxa).

**1952an jaiotakoen ospakizuna, hilaren 21ean**
Urriaren 21ean elkartuko dira. 70 euro ordaindu behar dira honako kontu korronte zenbakian: ES74 3035 0202 75 2021052286 (Laboral Kutxa); argibide gehiago: 636 05 35 58 (Eduardo Ortuzar).

**1959an jaiotakoen ospakizuna, hilaren 28an**
20:00etan frontoian elkartuko dira, eta ondoren Tartufon afalduko dute. 50 euro ordaindu behar dira hilaren 25erako: ES98 3035 0009 1100 9011 5031 (Laboral Kutxa).

# Iraganera itzulera, maite duten laguna omentzeko

2019ko irailean hil zen Iñaki Jauregi 'Canse' gogoratzeko kontzertu berezia emango dute Nightrains, Fucking What eta Debeku taldeek urriaren 27an Kartzela zaharrean (22:00); hiru taldeetako kide banarekin egon da GOIENA omenaldiaren berri emateko

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
Minbiziak jota 2019ko irailaren 14an hil zen Iñaki Jauregi *Canse*-ren omenezko kontzertua antolatu dute haren lagunek urriaren 27rako, Kartzela zaharrean (22:00). Nightrains –bertako kide zen *Canse*–, Fucking What eta Debeku taldeek joko dute, ordena horretan, eta sarrera doakoa izango da.

**Larrañaga: "Oso lotsatia zen"**
Nightrains taldeko abeslaria zen *Canse,* eta haren taldekide eta lagun Ibon Larrañagak dio oso berezia izango dela urriaren 27ko omenaldia: "Oso erraza izan zen *Canse* maitatzea. Ez zuen liskarrik izan inorekin; aztertu beharko litzateke zergatik gertatzen zen hori, baina esanguratsua da. Oso lotsatia zen, nahiz eta taldeko abeslaria izan; askotan gertatzen da hori, lotsak kanporatzeko musika edo beste edozein arte diziplina izatea kanala".

Entseguak "oso txarto" doazela dio Larrañagak, umoretsu: "Pantera, AC/DC edo Metallica-ren bertsioak joko ditugu, baina helburua ez da izango ondo jotzea. Lagun artean ondo pasatzea izango da helburua, eta *Canse* gogoan hunkitu egingo gara". Hasierako taldekideez gain, lagun asko pasatuko dira oholtzatik; besteak beste, Oihan Vega, Gille Sanz, Oskar Ortiz edo Mikel Alvarez.


Fucking What (1992); Bolibar, Etxeberria, Elorza eta *Poti.* BERRIGARA


Fucking What modu berean erretratatuta, 2023an. FUCKING WHAT

**'Poti': "Sekulako bihotza zuen"**
Fucking What taldeko bateria-jole Iñigo Gallastegi *Poti*-k urte batzuk daroatza Londresen bizi izaten, eta honela gogoratzen du bere laguna: "Sekulako bihotza zuen, oso jatorra zen. Beti irribarre batekin. Ni bezala, Euskal Herria laga eta urte asko egin zituen Bergaratik kanpo; azken urteak Ingalaterran egin zituen, hotel batean lanean eta bizi izaten. Bere gurasoak bata bestearen atzetik galdu zituen eta gutxira gaixotu zen; di-da batean hil zen. Nire lagun onenetarikoa bihurtu zen Ingalaterran".

Hain zuzen ere, Fucking What taldearen kontzertua izango da urriaren 27ko omenaldiko pizgarri nagusia, ia 25 urteren ostean zuzeneko bat emateko elkartuko direlako *Canse*-ren omenez. 1990eko hamarkadaren hasieran sortu zen taldea eta 1999ko otsailaren 6an eman zuten azken kontzertua Jam aretoan –gaur egun Plenoil markako gasolindegi bat dagoen lekuan–, Baron Rojo talde ezagunaren aurretik.

*Poti* Bergaran izan da astebururuan, aspaldiko taldekideekin entseatzeko: "Musika munduan ibilbide txikia egin zuen *Canse*-k eta Nightrains-eko bere taldekideek omenaldi bat egin nahi zioten; zerbait oso xumea, taberna baten-edo. Orduan pandemia heldu zen eta plan hori ez zen gauzatu. Bestalde, Fucking What taldekook ari ginen aspaldiko garaiak gogoratzeko kontzertu bat egin nahian eta gure taldekide Mikel [Etxeberria] *Canse*-ren taldekoa ere izan zenez, bi proiektuak bateratzea erabaki genuen. Horrez gain, Debeku taldeko Asier Lenisoro *Leni* ere bazen *Canse*-ren laguna eta Debeku taldekoek gure *Amesgaiztoak* abestiaren bertsio bat egin izan dutenez hiru taldez osatutako omenaldia egitea erabaki genuen".


Iñaki Jauregi Canseco, *Canse.*

**'Leni': "Beti zegoen pozik"**
Izan ere, Debekuko *Leni* aritu da buru-belarri omenaldia antolatzen. "Sekulako tipoa zen, beti zegoen pozik. *Canse* beti izango dut gogoan. Akordatzen naiz hil baino hilabete lehenago-edo afari bat egin genuela Gorlako elkartean, eta gero ez nintzen gehiago berarekin egon". Debekuk *Ohartu gara* diskoko abestiak joko ditu zuzenean, baina baita Fucking What taldearen *Amesgaiztoak* bertsioa eta beste bertsio batzuk ere.

**FUCKING WHAT-EN AZKEN KONTZERTUA 1999KO OTSAILAREN 6AN IZAN ZEN, JAM ARETOAN**

## 'Harixa' egitasmoa bailarara irekitzeko lanketa abiatu dute

Lan arloa euskalduntzeko *Harixa* programa "erreferentziatzat" hartu dute lanketa eskualdera zabaltzeko. Mankomunitatean egindako aurkezpenean egon ziren, besteak beste, Hizkuntza Politikarako sailburuorde Miren Dobaran eta Bergarako alkate Gorka Artola; Artolak esan zuen "pozgarria" dela *Harixa* bailaran "eredu" moduan hartu izana.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

# 'Oiogorri' filmatzen aritu da Etxebarriaren taldea

Geuretik Sortuak egitasmoari esker, film laburra grabatzen aritu dira Pette Etxebarria eta bere lantaldeko kideak, Antzuolan. Herritarren laguntza izan dute horretarako, eta eskertuta daude izandako harrerarengatik. Urriaren 21ean Aiherran izango dira



Ander Lipus eta Pette Etxebarria, pasa den eguaztenean, Antzuolan. A.R.K.

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Bilbon bizi den gizonezkoa da Agustin. Ahal bezala bilatzen du bizimodua, eta dirua ateratzeko, estatua biziduna da. Oilo batekin bizi da, baina galdu egiten da. Bere atzetik joango da mendiz mendi, Zuberoara iritsi arte; tartean, Antzuolatik ere igaroko da.

Hori da *Oiogorri* film laburreko istorioaren parte bat, Pette Etxebarria zuzendariak aurreratu duena, ez baitu xehetasun guztien berri eman nahi izan. Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoari esker ari da filma grabatzen, eta Antzuolan izan zen pasa den astean, urriaren 4 eta 5ean. Are gehiago, Aiherran (Nafarroa Beherea) ere izango da, bi herrien arteko senidetza hizpide izango baitu.

### Filmatutako eszenak

Bilbon filmatu zituzten lehen eszenak, eta Antzuolara jo zuten ondoren. "Herritar anitz hurbildu da, eta eskertzen diet haien presentzia, zeren eta ez da erraza izan behar horrela kamera aitzinean aritzea. Anitz izan dira, baina oso ongi jokatu dute", azaldu du Etxebarriak.

Han izan zen Ander Lipus antzerkilaria ere, bera baita pertsonaia nagusia gorpuztearen arduraduna. Hala, Antzuolan izandako esperientziaz jardun du. "Bilbon jende gehiago zebilen, eta zailagoa izan zen lan egitea; jende gehiago zegoen begira ea zer genbiltzan egiten. Gainera, nire aurpegi gorriarekin...". Musu gorri-gorriarekin antzeztu baitu Agustinen pertsonaia Lipusek, horren zergatiaren berri eman ez diguten arren. "Beste bake batekin aritu gara, ordea, Antzuolan. Erosoago gaude, eta hauekin lan egitea lasaia da".

**ANDER LIPUSEK GORPUZTEN DU PROTAGONISTA; EZ ZUEN DUDARIK EGIN ERABAKITZEAN**

### Lantaldearen berri

Etxebarriaz gain, beste bi kidek osatzen dute lantalde teknikoa. "Talde txikia gara. Hiru teknikari gara: batek, soinua hartzen du; beste bat laguntzaile gisa ari da lanean; eta azkenik, kameraz arduratzen naiz ni", esan du zuzendariak. Haren arabera, ordea, "denak lagunak" dira, eta baita Lipus bera ere.

Hain justu, *Oiogorri* filmeko zuzendaria gerturatu zitzaion Lipusi pertsonaia antzezteko proposamena egitera, eta aktoreak ez zuen dudarik izan. "Artista moduan ezagutzen dut Etxebarria, eta bere mundua beti da interesgarria, ezberdina eta pertsonala; baietz esan nion, gustura egingo nuela. Gidoia irakurri nuenean pixka bat eroa iruditu zitzaidan, baina berak nirekin lan egin nahi zuen". Hala, zin egin zion denboraz ondo ibiliz gero, lana onartuko zuela. Eta horrela izan da.

Proposamenaz harago, Lipusek garrantzia eman zion istorioak transmititu nahi duen mezuari ere: "Nik uste dut kritikoa dela. Mundu ero honi egiten dio kritika. Ez dut *spoiler*-ik egingo, baina pertsonaiak, protagonistak duen ibilbidea eta oilo horren atzean dagoen metaforak badu zer esana. Interesgarria da". Gainera, erantsi du aktore ibilbidean Agustinen erako pertsonaia batzuk egitea ere egokitu izan zaiola. Beraz, esperientzia badu.

### Ondoren, Aiherran

Bilbon eta Antzuolan filmatzen aritu ostean, Zuberoan ere arituko dira egunotan, eta azkenik Aiherra izango dute helmuga, urriaren 21ean. "Filmeko beste sekuentzia bat grabatuko dugu han, eta herritarren laguntza eskatzen dugu; izanen dira aihertar batzuk filmatuak izaten direnak, eta antzuolar batzuk ere hurbilduko dira". Alabaina, parte hartu nahi duen oro gerturatu daiteke filmaketa egun horretara, laguntza eskertua izango delakoan.

Filma abenduaren amaierarako amaituko dute, eta 2024an aurkeztuko da, Geuretik Sortuak egitasmoan egingo diren lanen zirkuitu batean.

## GORA ETA BEHERA



### Lapurreta egin dute Eztalan



Antzuolako Udalak salatu duenez, Eztala futbol zelaiko argiteriaren kablea lapurtu zuten pasa den astean. Salaketa jarrita, arazoa konponduko dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

## Elikadura nahasmenduen gaia izango da hizpide martitzenean

Mari Jose Arruti ACABE elkarteko psikologoak hitzaldia emango du, Olaran etxean, arratsaldeko seietan

**A.R.K.** ANTZUOLA

Bideberri Mankomunitateak –Gatzaga, Elgeta eta Antzuolako gizarte zerbitzuen mankomunitatea– antolatuta, Mari Jose Arruti psikologoak *Elikadura nahasmenduen prebentzioa eta tratamendua; ingurukoek jakin beharrekoa* hitzaldia emango du hilaren 17an, martitzena, Olaran etxeko goiko gelan, 18:00etan. Gipuzkoako ACABE Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkarteko kidea da.

Elkarteak, batetik, helburu du "elikadura nahasmenduko gaixotasunek dakartzaten kalteen eta arriskuen" berri ematea, eta, modu berean, gizartearen kontzientziazioan eragitea. Bestetik, eritasunen bat pairatzen duten herritarrei eta ingurukoei laguntzea ere badu asmo.

Donostian du egoitza nagusia ACABEk, baina 2003an beste bat zabaldu zuten Debagoienean. Hala, elkarteak egiten duen lanaren berri izan nahi duenak bertara ere jo dezake, hitzaldira gerturatzeaz gain. Arrasateko Jose Luis Iñarra pasealekuan du bulegoa.

## OHARRAK

### Aiherra-Antzuola

Urriaren 28an ospatuko da eguna Antzuolan, eta bazkarirako txartelak hilaren 23ra arte egongo dira salgai, liburutegian eta udaletxean.

### Udal gimnasioa

Lekua dago spinning, *hipo express*, 60+ eta goizetako *body tono* ikastaroetan. Astelehenetan *body tono* izango da 17:30ean ere.

### Erreka auzolana

Debagoieneko erreka auzolana egingo dute urriaren 21ean, eta Antzuolan izena eman daiteke *errekagarbitzeko@gmail.com* helbidean, hilaren 18a baino lehen. 09:30ean hasiko da, Herriko Plazan.

# Memoria historikoa modu askotara landu daiteke

Bisitari ugarik jarraitu zuten antzeztutako bisita gidatua domekan. Elgetan gustuko dituzte errekreazioak, eta modu horretan irudikatu dituzte, beste behin, 1936ko urrian gertatutako une lazgarriak. Pertsonaia historikoetan oinarritu dira oraingoan

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Memoria Eguneko ekitaldien barruan kokatua, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko lagunek CNT-ko miliziano anarkisten taberna, osasun intendentzia postua, errefuxiatuei harrera egiteko bulegoa, errepublikaren defendatzaileen lubakiak eta erasotzaile frankisten postua irudikatu dituzte, besteak beste. 40 bat boluntarioren parte hartzearekin egin zuten errekreazioa domekan, eta 1936ko urriaren 3ra eraman zituzten bisitariak. "Paisaia ederrak ditugu hemen. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa ikus daitezke inguruotatik, baina gertaera oso latzak eta odoltsuak bizi izan ziren parajeotan orain 87 urte", azaldu zuen Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kide eta antzezpeneko gidoilari Nerea Villa elgetarrak.



Bisitariak Belga posizioko antzezpena ikusten, domekan. I. ARANTZABAL

### Pertsonaia historikoak oinarri

Uberatik, Asentziomenditik eta Angiozartik heldu zen Camilo Alonso Vegak gidatutako lehen erasoaldia. Aurre egiteko arma gutxi eta zaurituak eta errefuxiatuak artatzeko botika eta baliabide eskasak izan zituzten, orduan, Elgetan. Hainbat izen, ordea, nabarmendu ziren, eta domekako bisita gidatuan gorpuztu zituzten. Hala nola: Eduardo Urtizberea mikeletea eta Elgetako sektore burua, errepublikari leial erantzun zion Miguel Eskoin guardia zibila edo Jose Bengoetxea Bergaran eratutako defentsa batzordeko delegatua Elgetan. Emakumerik ere nabarmendu zen. Horien artean da Esther Zilderberg belgikarra. Uste da Belga posizioa defendatu zuela beste hainbat lagunekin batera ekarritako metrailetarekin.

Gerrako biktima zibilen omenez Salbador ermita parean dagoen oroitarrian egindako lore-eskaintzarekin amaitu zen ekitaldia.




CNTko miliziano anarkisten taberna Salbador kalean. I. SORIANO



Falangisten eta erreketeen postua Asentzio ermitan. I. ARANTZABAL

## Errekak auzolanean garbitzeko deia egin dute urriaren 21erako

Eskualde mailako hitzordu bateratuaren 2. edizioa izango da; Elgetan Aixola erreka garbitzea da asmoa

**L.Z.L.** ELGETA

Debagoieneko zortzi herritan egingo da Erreka Auzolan Eguna, eta horien artean da Elgeta. Gazte asanblada, Kantsatzeke mendi taldea eta Udala ari dira antolaketan. Elgetari dagokionez, auzolana 11:00etan hasiko da. 13:00ak arteko saioa izango da, eta amaitutakoan hamarretakoa izango da parte-hartzaileendako Bolatoki tabernan.

Aseguru kontuak direla-eta ezinbestekoa da aurrez izena ematea. Urriaren 18ra arteko epea jarri dute antolatzaileek *danonartian@elgeta.eus* helbidean zein udaletxean izena emateko. Kalean jarritako kartelетako QR kodearen bidez ere eman daiteke izena.

Iaz egindako deialdian 30 bat lagun elkartu ziren eta zikin pila atera zuten Bigarren erreka ingurutik: botilak eta plastikoak, fardelak, errepideko seinaleak, pintura poteak... Erreka inguruak garbitzeaz gainera sentsibilizazio ariketa indartsua da Erreka Auzolan Eguna. Antolatzaileek parte hartzeko deia egin diete elgetar guztiei.



ASTIGARRA TRAIL TALDEA

## Bederatzi kilometro sagastian

Elgoibarko Lizasagar sagardotegiko lehen erronka jokatu zen domekan, eta hiru elgetar nabarmendu ziren. Bigarren egin zuen Martin Egizabalek (57:26) eta hirugarren Pablo Egizabalek. Emakumeetan, Alazne Lozanok egin zuen bigarren denborarik onena (1:16:51). Irabazleak Iñaki Goenaga (53:01) eta Lorea Totorika (1:11:38) izan ziren. 27 lasterkari aritu ziren.

### Enaitz Ezpeletaren hitzaldia, zibersegurtasunaz

Liburutegiak udaberrian abiatutako *Heziketa digitala* egitasmoak jarraipena izango du, eta Interneteko arriskuei buruzko hitzaldia egingo du Enaitz Ezpeletak hilaren 18an, 18:00etan. Ziberseguru jokatzeko aholkuak emango ditu. Batez ere gurasoei zuzendutako saioa izango da. Ludoteka zerbitzua eska daiteke. Azken eguna: urriak 16.

## OHARRAK

### Auzolana bihar

Egoarbitzako herri basoa garbitzeko deia egin du Udalak. Taldea 07:45ean elkartuko da plazan.

### Erretiratuak

Xalbadorpek hilaren 25ean egitekoa duen irteerarako izena emateko aukera izango da, domeka eguerdian, Ozkarbin. Podologoa, berriz, astelehenean izango da.

# Giza faktorea, balio diferentziala Rural Kutxarentzat

Sare zabala dugu Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, horren bidez, hurbileko eta kalitatezko zerbitzua eskaintzen dugu. Gure produktuen eta zerbitzuen eskaintzaz gain, **315 langile ditugu gure 175.000tik gora bezeroei** behar duten guztian laguntzeko eta aholku emateko; balio erantsi garrantzitsua, zalantzarik gabe. Azken batean, prest gaude herritar, pertsona fisiko, autonomo, saltoki, enpresa edo erakunde guztiak artatzeko.

Gure balioen artean, funtsezko beste gai bat da gizarte-erantzukizuna eta gure eskualdearen garapenari egindako ekarpena.

Horregatik, erabat inplikatuta gaude tokiko inbertsioetan eta gure egiten ditugu tokiko ohiturak eta tradizioak hurbileko Gizarte Ekintzaren bidez, faktore bereizgarri gisa. Gizarte-jar-

Guretzat, bulegoa da harreman pertsonalen erdigunea, eta **gure balio nagusiak dira hurbiltasuna, konfiantza, gizartearekiko konpromisoa eta egonkortasuna, eta fidagarritasuna**; horrela, aholkularitza pertsonalean jartzen dugu arreta

Rural Kutxa kreditu-kooperatiba bat da, 30 urte daramatzana lanean Euskal Herrian, eta 90 bulego ditu gipuzkoarrei zerbitzua emateko




aniversario urteurrena 25 BERGARA

RURAL KUTXA BERGARA Iñigo Altuna, Esther Martínez eta María Olaizola (zuzendaria). Telefonoa: 943 76 93 93 - *oficina.0169@ruralkutxa.com* - Irizar pasealekua 5




RURAL KUTXA OÑATI - Eva Corrales, Elizabeth Elkoroberezibar (zuzendaria) eta David Blázquez. Telefonoa: 943 71 88 67 - *oficina.0198@ruralkutxa.com* - Foruen Enparantza 9

duketa horien ildoan zenbait ekimen jarri ditugu abian, hala nola ***Eskola Digitala***. Ikastetxeei eta familiei digitalizazioan laguntzeko diseinatu dugu ***Eskola Digitala***, eta arlo digitaleko inbertsioak egiteko gure babesa izan dute **Euskadiko 113 ikastetxetako 50.000 ikaslek eta 4.000 irakaslek** baino gehiagok. Era berean, Rural Kutxak **Gipuzkoako 53 klubekin** lankidetzan dihardu oinarrizko kirola sustatzen, eta aurten, ***Donosti Cup*** txapelketan ere parte hartu dugu.

Debagoienean, gure banku-zerbitzuak **aurten 25 urte bete ditu Bergaran, 20 Oñatin eta 15 Arrasaten, eta efemeride hori ospatu nahi dugu**, bertako biztanle guztiekin. Zuek gu aurrez aurre ezagutzea gustatuko litzaiguke, ikus dezazuen zergatik garen erakunde desberdina.

**Gure urteurrena ospatzeko, Rural Kutxa Debagoiena gordailua** aurkeztu nahi dizuegu. Aurrezki-produktu berri honek **%4ko interes tasa nominala du (%4,06ko UTBa), 12 hilabeteko epearekin eta hiru hilean behingo interes-likidazioarekin**. Aurrez aurre azaldu nahi genizuke, gu ezagutzeko beste aukera bat izango baita.

25 BERGARA · 20 OÑATI · 15 ARRASATE

**Debagoienean, gure banku-zerbitzuak aurten 25 urte bete ditu Bergaran, 20 Oñatin eta 15 Arrasaten.** Beti bezala, Bergara, Arrasate eta Oñatiko gure bulegoetan gaituzue zain. Gure hiru taldeek arreta pertsonalizatua eskainiko dizuete.




RURAL KUTXA ARRASATE - Asier Alberdi, Iune Guridi, Eneko González eta Rubén Sáenz de Buruaga (zuzendaria). Telefonoa: 943 79 53 43 - *oficina.0253@ruralkutxa.com* - Biteri plaza 2

# Jantokiak jarri dituzte kaleko katuendako

Oñatiko Kale Katuen Elkarteak kudeatuko ditu jantokiak, sei, oraingoz, eta katuen koloniak zaintzeko lanean jarraituko du; esterilizazioak herriko albaitarien kliniketan egiten dituzte eta adopzioak ere ari dira gauzatzen

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Kaleko katuendako jantokiak jartzea zen Oñatiko Katu Kaleen Elkartearen asmoetako bat, katu horien zaintzan jatekoa kontrolatuta egon zedin. Eta ari dira horretan. Hainbat jantoki jarri dituzte dagoeneko herriko gune ezberdinetan; sei, oraingoz. Zubillagan, berriz, kaleko katuak hartzeko aterpetxe bat jarri dute.



Katuendako janlekuetako bat, San Anton kalean. O.E.

### Esterilizazioekin hasita

Jantokiak toki ezberdinetan daude jarrita, eta zer eta zertarako diren azaltzen duten kartelak ere jarri dituzte jateko lekuen ondoan. Elkarteko kideek dute toki horietan katuei jatekoa jartzeko ardura. "Lanean jarraitzen dugu kaleko katu-koloniak zaintzeko. Dagoeneko hamalau esterilizatu ditugu eta beste 25 adopzioan eman. Jende gehiago ere batu da taldera, eta pozik gaude. Egia da oraindik etortzen dela jendea hau edo beste esatera, baina proiektua zein den azaltzen diegu eta ari dira herritarrak ulertzen", dio elkarteko kide Irene Morenok.

Herriko albaitariekin ere hitz egin dute, eta euren kliniketan egiten dituzte esterilizazioak eta markaketak, txandaka. Baita Udalarekin ere. Hain zuzen ere, elkarte honekin egindako hitzarmena onetsi zuen, aho batez, udalbatzak azken ohiko osoko bilkuran, irailekoan, kaleko katu-koloniak kudeatzen laguntzeko dirulaguntza emateko akordioa; 7.000 euroko laguntza ekonomikoa.

### Irailaren 9a, jai eguna

Osoko bilkuraren hasieran hartu zuen, hain zuzen ere, zinegotzi kargua Anjel Mari Biain Zubiagirrek, Jon Kepa Gerrikagoitiaren tokia hartuz. Kargu-hartzea eta Oñatiko Kaleko Katuen Elkartearekin egindako hitzarmena bezala onartu zituzten gainerako puntuak ere, aho batez. Horien artean, esaterako, Naziometroari babesa emateko akordioa, Udalaren eta Olaso Fundazioaren artekoa.

Datorren urteko jai eguna onartzea ere tokatu zitzaion udalbatzari iraileko osoko bilkuran. San Migel eguna izan ohi da herriko jai eguna, irailaren 29a, baina 2024an egun hori domeka izanik, irailaren 9ra, Arantzazuko Amaren egunera, pasatzea onartu zuten udal ordezkariek.

## GORA ETA BEHERA



### Herribusaren puntualitate falta

Hauxe da herritar batek argazkiarekin salatu gura duena: "Behin baino gehiagotan aurkitu dut autobusa gidari gabe geltokian, jendea kanpoan itxaroten eta irteera ordua pasata".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

### Udazkeneko bonuak eskuratzeko moduan daude dagoeneko

Udazkeneko bonuen kanpaina hasi da. Aurrekoetan bezala, kanpainara batu diren komertzio eta ostatuetan erabili ahal izango ditu herritarrak bonuak. Oñatin erroldatutako hamasei urtetik gorako herritarrek erosi ahal izango dituzte bonuak, eta pertsona bakoitzak 50 euroko muga izango du %20ko deskontu bonuak erosteko. Bonuak Internet bidez, *Oñati.bonoak.eus* helbidean sartuta, edo kanpainarekin bat egin duten komertzioetan eska daitezke azaroaren 30era arte, aurrekontua lehenago agortzen ez bada –17.500 euro–. Bonuak erabiltzeko azken eguna, bestalde, abenduaren 7a izango da.

### Erorketak saihesteko tailerra egingo dute adinekoendako

Adinekoek erorketa gutxiago izaten lagunduko duten ariketak lantzeko tailerra antolatu dute berriz ere Oñatiko Udaleko Gizarte eta Kirol departamentuek, herriko osasun zentroarekin eta Jaurlaritzako Osasun Sailarekin batera. 65 urte baino gehiago dituzten pertsonei eta euren senide eta zaintzaileei zuzenduta dago. Zubikoa kiroldegian egingo dituzte saio teorikoak eta praktikoak datorren astean bi egunetan: urriaren 16 eta 18an, 16:00etatik 18:00etara. Tailerra doan da, baina plazak mugatuak dira, eta aurrez eman behar da izena herriko anbulatoriora joanda edo hara deituta: 943 03 54 30.



# GOIENA TELEBISTA
## SASOI BERRIA

# Sasoi bateko kontuak, hura bizi izan zutenekin

'Kontu kontari' izeneko saio berria estreinatuko du Goienak datorren urriaren 19an, eta bertan, ia mende bete dituzten pasadizio eta istorioak kontatuko dituzte Debagoieneko hainbat lagunek. Guztira bederatzi egingo dira, herri bakoitzeko bana

Badator denboraldi berria Goiena telebistara. Badatoz ekoizpen eta saio berriak, askotariko nahi eta gogoak asetzera. Eta denboraldi berrian, orain arte bezala, bidelagun izango ditu Goienak Debagoieneko izate, gustu, lanbide, herri, eta adin desberdineko herritarrak. Hala, datozen hilabeteotan, Goiena telebistak jarraituko du orain arteko saioekin, baina, urriro egiten duen moduan, berriak ere estreinatuko ditu.

**Urriaren 19an, estreinaldia**

Hain justu ere, datorren eguenean, urriak 19, saio berrietako baten estreinaldia izango da Goiena telebistan. *Kontu kontari* izenburupean, gure herrietan bizi-esperientzia handia metatua duten pertsonak izango dira protagonistak. Duela zortzi-bederatzi hamarkada jaioak, ume eta ez hain ume zireneko garaietako pasadizo eta istorio mordoa kontatuko dituzte saio berrian. Pozak, minak, gosea, zailtasunak, aldaketak... *Kontu kontari* elkarrizketa saio bat da, mimoz egina eta garai bateko gure herriak, ohiturak eta zenbait pasadizo hura bizi izan duten herritarren istorioen bitartez ezagutzeko aukera eskainiko duena. Lehenengo denboraldian, Debagoieneko bederatzi herrietan izango da Goiena, eta herri bakoitzean pertsona bana elkarrizketatuko du. Pertsona hori izango da ezaguna herrian, bizipen asko dituena eta istorioak kontatzen abila. Istorio horien bitartez, ikusleak ezagutu ahal izango du protagonista bera, hark bizitakoa, baina baita herria, beste sasoi bateko gizartea eta kontuak ere, kontu asko eta asko. Elkarrizketatzaileak beti desberdinak izango dira. Batzuetan Goienako kazetariak, baina ez derrigorrean. Hori bai, beti-beti, elkarrizketatzen den pertsona horren herrikoa edo herria ondo ezagutzen duena izango da berbaldia gidatuko duena.



Asun Arzuaga argazki zaharrei begira. MARKEL ARRAYAGO

**Asun Arzuaga, lehenengoa**

Dagoeneko hasiak dira grabaketa lanetan, eta, lehenengo saioan, Oñatira egingo dute. Bertan, duela 93 urtetik herriko plazan bizi den Asun Arzuaga Lasagabaster izango da protagonista. Arzuaga Kale Zaharrean jaio zen 1930eko abuztuan, baina sei hilabete zituela plazara joan ziren bizitzera. Han egin du bizitza osoa, eta plazan denbora gehien daraman herritarra da gaur egun. Arzuagak gidoigintzan ere lan handia egin du azken bi hamarkadatan; izan ere, Pake Lekuko Ikusi Makusi antzerki taldeko antzezlanen gidoilaria da. Gidoilaria bakarrik ez, baita zuzendaria ere. Plazako haren etxean grabatu zuen Errosaixo Bixamonaren bihäramunean Goienak elkarrizketa. Hartan, gerrako kontuak, gerra ostea, errazionamendua, eskola, maistra izan zenekoak, XX. mendeko Oñatiko komertzioaren gainekoak, elizako kontuak, apaizen sermoiak, jaiak, lagunekin bizi izandakoak eta gehiago kontatu zizkion Goienari, eskuzabaltasunez. Elkarrizketa goxoa eta istorioz betea izango da *Kontu kontari* saio berriko lehenengoa. Garai bateko Oñatiren ingurukoak gehiago ezagutzeko aukera polita. Lehenengo saioa ikusi ahal izango da hilaren 19an, eguena, 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean, Goiena telebistan.

**'KONTU KONTARI' IZENEKO TELEBISTA SAIOA ESTREINATUKO DU GOIENAK URRIAREN 19AN**

**ASUN ARZUAGA OÑATIARRAK GAZTETAKO PASADIZO MORDOA KONTATUKO DITU LEHENENGOAN**

**HERRI BAKOITZEAN LAGUN BAT ELKARRIZKETATUKO DU GOIENAK LEHEN DENBORALDIAN**

**Oñatitik Aretxabaletara**

Oñatin hasita, esan bezala, Debagoieneko bederatzi herriak zeharkatuko ditu Goienak *Kontu kontari* saioarekin, eta bigarrena Aretxabaletako Manolo Zubillagarekin (Aretxabaleta, 1940) egingo du. Zubillaga ezaguna da herrian, herrigintzari eskaini baitizkio urte asko eta asko. Gainera, pilotaren ingurukoak –Asegarce enpresan egin du lan 22 urtean– eta txirrindularitzaren gainekoak kontatzeko pertsona ezin hobea da Zubillaga. Ez hori bakarrik, UDAko eta Alkar elkarteko presidente izana da, eta baita zinegotzia ere. *Kontu kontari*-ko bigarrena ere berezia izango da, haren alaba Itxaro Zubillagak egingo baitio elkarrizketa aitari.

**Kalitatezko ikus-entzunezkoak**

Goiena telebistaren asmoa da, lehenengo denboraldiaren ostean, *Kontu kontari*-ren beste bati ekitea. Izan ere, gure nagusien jakinduria eta ezagutza batzeari ekin dio saio honekin Goienak, eta jarraitu gurako luke lanketa horrekin. Saioa kalitatezko ikus-entzunezko lana izango da, eta Goiena telebistan ez ezik, *Goiena.eus*-en ere ikusgai egongo da. Estreinaldia, aurreratu bezala, urriaren 19an, eguena, 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean.

# 'Hemen Debagoiena' sasoi berrirako prest

Uda giroan murgilduta ibili da aurten 'Hemen Debagoiena' saioa, abuztu aurreko zein osteko asteetan. Itxuraz eta edukiz. Baina udazkenaren etorrerarekin, ekin dio ikasturte berriari. Ohiko tarte finkoei berriak gehituko zaizkie datozen asteetan

Larraitz Zeberiok aurkeztuta, ohiko egitura berreskuratu du saioak, baina badira berritasunak. Tarte finkoei dagokiena izango da horietan nagusiena: orain arte hiru baziren, bost izango dira aurrerantzean, egunero bat. Goienako ikus-entzuleek hain gustuko dituzten atal finkoak indartuta datoz, beraz, oraingo ikasturtean. Baina horiekin batera, ez dira faltako, noski, elkarrizketak, herrietako berriemaileek gidatutako tarteak, Goienaren beste hedabide batzuetan argitaratutako edukien aurrerapen edota errepasoak... Adituei ere irekiko diegu lekua, nork bere jakintzatik ekarpena egiteko; eta amantala ere jantziko dugu tarteka, Ane Goikoetxearen jarraibideei adi, adibidez, errezeta goxoak prestatzeko.



Jose Javier San Torcuato eta Iñigo Barrena, Lacor enpresan. GOIENA

ASTELEHENETAN
**LANDARA**
*Landara* tarteak irekiko du astea. Lehen sektoreko egunerokotasuna eta kezkak, garaiko produktuak eta eginbeharrak... horiei buruz ariko da, astelehenetan, Julen Murua kazetaria. Lehen sektorean diharduten debagoiendarrak izango ditugu tarte honetako protagonista. Eta jende berria ezagutzeko aukera ere eskainiko digu: artzain txakur txapelketetan lehen urratsak ematen dabilen Asier Dacosta aretxabaletarra, adibidez, datorren astean.

MARTITZENETAN
**DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK**
Martitzenetan, Eneko Azurmendik izango du txanda *Debagoiendarrak mundutik* atalarekin. Kolaboratzaile sare berria osatuta, horien bizipenak eta bizitokiak erakutsiko dizkigu, eta, hala, Danimarkara, Portugalera, AEBetara edota Bahametara bidaiatzera gonbidatuko gaitu.

EGUAZTENETAN
**DEBAGOIENEAN EGINA**
Eguaztenetan izango du lekua ikasturteko erreportaje sorta berriak: *Debagoienean egina*. Iñigo Barrena kazetariak bailarako fabrika barruetara eramango gaitu, horietan zer eta nola egiten duten erakusteko. Enpresa-izenaren atzean dagoen izana ezagutzeko aukera paregabea.

EGUENETAN
**LUZAPENA**
Kirolariak izango dira eguenetako protagonistak. Kirolari debagoiendarrekin patxadaz ariko da Mireia Bikuña, *Luzapena* erreportaje sortarako. Hurrengo asterako, esaterako, txirrindularitza utzi berri duen Xubane Garairekin egin du hitzordua.

EGUBAKOITZETAN
**DATU KAZETARITZA ETA ELKARTEAN**
Eta nobedadeekin datoz egubakoitzak ere: astez aste txandaka, lekua egingo diete datu-kazetaritzari eta eskualdeko elkarteei. Amaia Ramirez de Okariz Kortabarriak izango du gaurkotasuneko gaiak datuz lagunduta aurkezteko ardura; Aitor Agiriano Arresek, berriz, bateko eta besteko elkarteak beste modu batera erakusteko erronka.

# The Clayton-en disko berriaren atzeko aldea, lau haizetara

Danbaka irabazi zutenen lan berriaren xehetasun guztiak erakutsiko dira erreportaje berezi batean

The Clayton talde aramaioarrak irabazi zuen Danbakako sari nagusia eta, beraz, disko bat grabatzeko aukera. Lehiaketan izena eman zutenerako euren bigarren diskoa izango zenerako abestiak sortzen hasita zeuden eta behin sariketa irabazita buru-belarri jarri ziren *Over the red light* izenburu izango duen diskora begira lanean.

Goienak gertutik jarraitu du boskote aramaioarraren disko berria, eta atzeko aldea erakusteko erreportaje berezi bat kaleratuko du azaroaren 17an. *Claytondarrak* eurak izango dira protagonista ikus-entzunezkoan, baina ez eurak bakarrik; Goienak hitza emango die, besteak beste, diskoa grabatu dien Zestoako Gaztain estudioko Eñaut Gaztañagari, Danbakako epaimahaikide Aitor Aldanondori eta diskorako aurre-grabaketez arduratu zen Asel Errastiri.

# Informazioak ez ezik, entretenimenduak ere izango du lekurik Goiena telebistako saioen artean

'Bixi ibili!' saioaren bigarren aldia izango da aurtengoa; umorea oinarri duen lehiaketa da. 'Kontu kontari' saioan, Debagoieneko nagusiak izango dira protagonista



## Hemen Debagoiena

- Egunero
- 18:00, 20:00 eta 22:00




## Albisteak

- Egunero
- 14:00, 15:00, 16:00 eta 17:00




## Harmailatik

- Astelehena
- 19:30, 21:30 eta 23:30

# 'Bixi ibili!': herrien arteko tribial pike bizia

Debagoiena plato bihurtuta, herrien arteko tribial-pikearen bigarren denboraldia abiaraziko du Goiena telebistak. Aitor Agiriano izango da saioaren aurkezlea, eta urriaren 17an, martitzena, 19:30ean, estreinatuko da lehen atala pantailan

Burua bixi-bixi izan beharko dute debagoiendarrek herriaren alde dena eman eta sailkapeneko lehen postua eskuratu ahal izateko; eta, nola ez, Aretxabaletari testigua hartu. Izan ere, aretxabaletarrek lortu zuten garaipena lehen denboraldian.

Aldi berri honetan ere, Debagoieneko herri guztiek izango dute isla 9 atalez osatuta egongo den saioan. Astero herri bat izango da protagonista, eta tokian tokiko ohituren, hitzen, pertsonaien eta abarren inguruan oinarritutako galderak erantzun behar izango dituzte, besteak beste, lehiakideek. Parte-hartzaile bakoitzak galdera bakarrarekin izango du herriaren alde puntu bat lortzeko aukera. Erantzuna argi ez duten kasuetan, komodina erabiltzeko aukera izango dute: telefonoarekin lagun, senitarteko edo gertuko bati dei bat egiteko aukera izango dute. Denboraldi amaieran, herrien arteko rankingak adieraziko du Debagoieneko zein herrik dakien gehiago.

**Bitxikeriak, lau haizetara**

Bi saioren arteko pikea ere izango da. *Bixi ibili!* saioko Aitor Agiriano ez da bakarrik ibiliko, *Zirikatzen* saioko Aitor Agiriano ere izango du, xaxatu eta programako gidaritza kentzeko borrokan. Hori da berrikuntzetako bat. Ikus-entzulearen deia kontuan hartu eta Goiena telebistan arrakastatsua izan den galdera-erantzun xelebreen saioak ere izango duelako lekua aldi berri honetan. Aitor Agirianok bi pertsonaia ezberdin hezurmamituko ditu entretenimenduz eta jolasez.



Aitor Agiriano eta Debagoieneko herritarrak dira saioko protagonistak. GOIENA


The Movement taldearen emanaldia ere jasoko du saioak. THE MOVEMENT

## Arrasateko Gaztetxeko oholtzatik Goiena telebistara

Kooltur Ostegunak ekimenarekin elkarlanean jardungo du Goienak, kontzertuak grabatu eta eskainiz

Abiatu da Kooltur Ostegunak ziklo berria eta aurten ere Arrasateko Gaztetxeko oholtzara igoko diren hainbat musikari Goienan ikusi ahal izango ditugu, telebistan zein nahieran (*Goiena.eus* atarian eta Goiena aplikazioan).

Urtero bezala, zuzenekoak Gaztetxean bertan ikusi ahal izango dituzue, eguenetan 22:00etatik aurrera. Astebete geroago, eta egubakoitzetan, 23:00etan, Goiena telebistak eskainiko du zuzenekoa.

**Estilo askotariko kontzertuak**

Bengo, The Movement, Munlet eta Grade 2 taldeak gonbidatu ditu, hurrenez hurren, Kooltur Ekintzak taldeak urriko eguenetarako. Hurrengo kontzertuan, urriaren 12an, The Movement talde danimarkarra izango dugu Arrasateko Gaztetxean. Talde beteranoa da eta mod-rock etiketapean kokatzen dira. Zuzeneko oso indartsudun hirukotea. Kontzertu honekin abiatuko dugu denboraldia Goiena telebistan, urriaren 20an, 23:00etan.



### Osoko bilkura

- Arrasate, Bergara eta Oñati
- Zapatu eta domeka



### Bixi ibili!

- Martitzena
- 19:30, 21:30 eta 23:30



### Kooltur

- Egubakoitza
- 23:00



### Kontu kontari

- Eguena
- 19:30, 21:30 eta 23:30



Primeran plataformaren irudi bat non ageri diren bertan ikus eta entzun daitezkeen edukiak. GOIENA

# Goienaren edukiak Primeran plataforman

Primeran euskarazko ikus-entzunezko streaming plataforma sortu du EITB taldeak. Askotariko edukiak daude bertan: euskal ekoizpeneko eta nazioarteko telesailak, zinea, dokumentalak, haurrentzako edukiak… Goienarenak ere bai

Netflix, HBO, Prime Video, Filmin... streaming plataforma ospetsuak dira. Ikus-entzunezkoak kontsumitzeko ohiturak aldarazi dituztenak. Nahieran, jarraian eta nahi beste eduki, edozein pantailatan, eskura izatea ahalbidetzen dute. Milioika kontsumitzaile dituzten plataforma global ahaltsu horietan, euskararen presentzia hutsa edo hurrengoa da. Euskal telebista publikoak, EITB taldeak, berea sortzea erabaki du. Hartara, euskarazko ikus-entzunezkoek beste leiho bat izateko. Irailaren 15ean aurkeztu zuten.

EITB taldearen edukiak ez ezik, beste eragile batzuek sortutakoak ere gozagarri daude bertan. Baita Goienarenak ere, Tokikom elkarteko beste telebista batzuetakoak bezala.

**Tokiko edukiak ere bai**

"Euskal edukiak denentzat eskuragarri jarriko dituen plataforma digital berria". Hala definitu du EITBk Primeran plataforma. "Euskarazko ikus-entzunezkoak plataforma bakarrean egotea garrantzitsua da; guztiok batuta erakargarriagoak izango gara", dio Oihane Agirrek, Goiena telebistako zuzendariak. Eta zera gehitu du Alaitz Artolazabal Tokikomeko –euskarazko tokian tokiko hedabideak batzen dituen elkartea– zuzendari nagusi Alaitz Artolazbalek: "Gure edukien bitartez, Euskal Herriko txoko desberdinetako errealitatea eta testigantza islatzen duten edukiak jasoko dira Primeran-en, gainontzeko plataformetan jasotzen ez dena. Zentzu horretan, tokikoen edukien erakargarritasuna nabarmendu du Artolazabalek: "Plataforma honen elementu bereizgarria ere izan daiteke. Hainbat ikerketak azpimarratzen dute gertuko, tokian tokiko, edukiak bereziki erakargarriak direla azken hartzaileentzat".

Primeran-en 3.000 atal edo film baino gehiago daude ikusgai. "Erakusleiho honek aukera emango die gure bazkideei, publiko berrietara heltzeko edota kontsumo momentu desberdinak aprobetxatzeko, bide honetatik ere gure edukietatik helduz", dio Artolazabalek. Goiena Komunikazio Taldeareн ze eduki aurki daitezkeen galdetuta, zera dio Oihane Agirrek: "Bereziki erreportajeak, azken urteetan ekoiztutakoak: *Biktimen ahotsak*, *Errekak bizi, Zerrajera*... Baina baita Danbaka Musika Lehiaketaren azken edizioko kontzertu guztiak ere; azkena, 2022koa, bosgarren edizioa izan zen".

**Nola ikusi**

Plataforma berria *Primeran.eus* webgunean erabili ahal da, eta aplikazioa deskargatu daiteke telebista konektatu gehienetan eta telefonoetan –Google Play eta iOS gailuetako dendetan–. Chromecast bidez eta Hbbtv-etan ere ikus daiteke. Doakoa da Primeran. Edukiak ikusteko, dena den, erregistratu beharra dago.

**PRIMERAN-EN EDUKIA DOAN DA, BAINA IKUSTEKO ERREGISTRATU BEHARRA DAGO**


GOIENA

## "Euskal edukien leihoa da Primeran"

**ALEX GIBELALDE**
PRIMERAN-EKO ARDURADUNA

Alex Gibelalde beasaindarra Silicon Valley-n, Google, Twitter eta HBO enpresatan jardundakoa da.

"Streaming plataforma honek helburu bikoitza du: euskarazko eta euskal edukiek beren tokia izatea mundu digitalean, eta mundu digital honetatik hain hurbil dauden gazteendako euskarazko eskaintza izatea".

Euskarazko plataforman denetariko ikus-entzunezkoak aurki daitezke, baita tokikoak ere. "Euskal Herriaren leiho digitala izatea helburu du, beraz, Tokikom-eko edukiak izatea, tartean Goienakoak, garrantzitsua da. Plataforma erakargarriagoa izango da agente desberdinen kalitatezko edukiak batuta". Pozik azaldu da harrerarekin. "Hemengo plataforma erreferentea bihurtzeko lanean jarraituko dugu".

## Zelan ikusi Goiena telebista

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
**943 25 05 05**

**Antena bidez**
Lurreko telebista digitalaren seinalea jasota, antena bidez ikusi ahal izango da Goiena telebista etxeetan. Kasu honetan, 25. kanalean topatuko duzu.

**Euskalteleko kable bidez**
Euskaltelek duen telebistaren eskaintzaren barruan dago Goiena telebista ere. Debagoienean, hamaikagarren kanalean topatuko duzu.

**Nahieran 'Goiena.eus' atarian**
*Goiena.eus* atarian ikusi ahal izango dituzu telebistako ikus-entzunezko edukiak; zuzenekoa zein norberak aukeratutako saioa nahieran.

**'Goiena' aplikazioa**
Goiena telebistako edukiak nahieran ikusteko aukera erraza eta erosoa klik bakarrean. Zure eskuko telefonoan edo tabletan deskargatu aplikazioa.

# Laugarrena dator, orain arteko "elektrikoena"

Domeka eguerdian, 12:30ean, aurkeztuko du disko berria Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak: 'Arnasaldiak'. Zortzi kanta ditu eta aurrekoak baino "rockeroagoak" dira. Kontzertuan erosi ahal izango da lehendabiziko aldiz diskoa, CD formatuan

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

*Arnasaldiak* du izena Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldearen disko berriak; laugarrena *Marti*-rendako, bigarrena taldearendako. Orain arteko "rockeroena" edo "elektrikoena" batetik, eta aurrekoak baino "gardenagoa", bestetik.

### Gain grabaketarik barik

Diskoa grabatzeko moduak eman dio emaitzari gardentasuna. Sistema analogikoan grabatu dute hein handi batean. Ordenagailuekin egin daitezkeen muntaietatik urrundu gura izan du taldeak oraingoan, eta den moduan azaldu. "Guk gurea egin dugu, dakigun moduan eginda musika. Denok batera jo ditugu kantak. Diskoak ez ditu horrenbeste perfekzio kapa; naturala da, zintzoa da alde horretatik", azaldu du *Marti*-k. Martxoan grabatu zuten diskoa Andoaingo Garate estudioan, eta ez dago gain grabaketarik, elkarrekin jo zituzten kantu guztiak.

### Zortzi kanta eta lagun asko

Aurreko denak baino "rockeroagoak" diren zortzi kanta ditu diskoak. "Ahotsa zaintzen saiatu gara. Kanta batzuk, gainera, bi ahotsetara abestu ditugu. Esango nuke eboluzio bat ikusten dela lan honetan". *Marti*-renak dira kanten letrak eta baita doinuaren oinarria ere, konponketak denen artean egin badituzte ere. "Kanten letrak, zehatzak izan barik, difusoagoak dira. *Arnasa* hitza askotan agertu da, egoera ezberdinetan erabilita, eta hortik datorkio izena diskoari, *Arnasaldiak*".

Taldea osatzen duten bost lagunen ondoan izan dira, gainera, grabaketa honetan, Oskar Arlanzon, Ander Etxaniz, Iraia Aizpuru eta Ane Arruti. Eta audioko grabaketa ez ezik, irudi batzuk ere grabatu dituzte estudioan egindako egonaldian. Dokumental bat egingo dute irudi horiekin, eta diskoko kanten grabazio uneak, taldekideen hausnarketak zein beste bitxikeria batzuk jasoko ditu ikus-entzunezko horrek. Datozen egunetan argitaratuko dute dokumentala.

**ESTUDIOKO GRABAZIOAN IRUDIAK ERE JASO DITUZTE, DOKUMENTAL BAT EGITEKO**

### Denboraldiko lehendabizikoa

Domeka eguerdian, 12:30eko *matinee*-an, aurkeztuko du taldeak disko berria. Kanta berriak ez ezik, zaharrak ere joko dituzte, eta umeei zein nagusiei egin gura die gonbidapena Martinez de Zuazok, bertaratzeko. Diskoa kontzertuan erosi ahal izango da lehen aldiz, CD formatuan.

Eta kontzertu horrek emango die hasiera, hain zuzen ere, gaztelekuko ikasturte berriko kontzertuei. Baita *matinee* zikloari ere, izango duelako jarraipena formatu horrek.



Iker Martinez de Zuazo gitarrarekin, Zaldi Herrenak ondoan dituela. IBAI ARRIETA



NIRE USTEZ

**JOSU ZUBIA**

## Eltzian kozinatzen

Orain dela 10 urte hasi zen Eltzia proiektua egosten. Honakoa, munduaren logikari muzin egin nahi dion proiektua da eta alderantzizko mundu bat sortu eta bizi nahi duen minilurraldea. Bizitza berriek, ideia berriek, harreman berriek laborategia behar dute eta hori izan daiteke Eltzia. Ehundaka lagunek eta hamaika elkartek osatzen dugu laborategi hau. Borroka handiegia da munduaren logika iraultzea eta bide horretan beti daude zailtasunak eta kontraesanak; baina borroka eta amets guztien parte dira. Hala ere, azkenaldian Eltziako txinpartari distira dario eta badirudi su bihurtzeko asmotan dabilela txinparta hori. Su baxua, Eltzia barrua goxatzeko. Su geldoa, bertako zapore den-denak ondo antzemateko; herriak menua dastatzen duenean zapore ikaragarria edukitzeko.

Eta horretan ari gara, dena suabe-suabe kozinatzen. Egon adi, zeren laster izango duzue kozinatutakoaren berri. Eta hemendik menua dastatzeko gonbidapena egin nahi dizuet, Oñati!

Etorri eta gozatu!




JABI EROSTABE

## Trena egon zeneko seilua

Irailaren 30ean bete ziren 100 urte Oñati eta Elorregi arteko trena inauguratu zela; 1967ko abenduaren 31n egin zuen azken bidaia. Urteurrena gogoratzeko, Jabi Erostarbek diseinatutako seilua eta Elorregiko, Zubillagako eta Oñatiko geltokiak ikusten diren postala atera dituzte. Turismo bulegoan eros daitezke, bost eurotan.

## Zabalagoa da aurtengo eskulan ikastaroen eskaintza

Udalak antolatutako eskulan ikastaroetan talde gehiago sortzeko aukera eskaini dute aurten. Orratz lanak ikasteko kurtsorik ez da egongo, baina zeramikazkoak berreskuratu dituzte, eta modu horretara, pintura eta eskulan dekoratiboez gain, buztinarekin lana egiteko ikastaroak ere eskainiko dituzte datorren hilabetetik aurrera.

Berrikuntza horrez gain, baina, umeendako eskaintza da, bereziki, handitu dena. Pinturan, esaterako, 6 eta 18 urte artekoek ere eman dezakete izena. Beste bi ikastaroetan ere egongo dira gaztetxoendako taldeak.

Azaroaren 2an hasiko dira eskulanen ikastaroak, Bidebarrietako lokaletan, baina izena emateko azken eguna urriaren 18a da. Udal webgunean sartuta edo kultura etxera joanda eman daiteke izena. Informazioa ere toki horietan kontsulta daiteke.


Urrutia, Louzan Sky Race lasterketan. LOUZAN SKY RACE


Malen Osa aurten jokatutako proba batean. GOIENA


Kortazar Ultra Sanabria lasterketan. ULTRA SANABRIA

# Onenen artean lehiatzeko prest

**MENDI LASTERKETAK** Mendi lasterketen denboraldi amaiera polita dute Debagoieneko korrikalariek. Malen Osa eta Oihana Kortazar Golden Trail Serieseko finaletan izango dira, eta Ainara Urrutia, berriz, SkyRunner World Serieseko SkyMasters finalean

**Iñigo Barrena** DEBAGOIENA

Denboraldi amaierara iristen ari dira mendi lasterketak, eta debagoiendarrak ere, azken txanpa horretan, korrika egiteko zapatilei azken astindua emateko prest dira. Malen Osa, Oihana Kortazar eta Ainara Urrutiak finalak jokatuko dituzte datozen asteetan. Osa eta Kortazarren kasuan, Golden Trail Serieseko finalean izango dira urriaren 19an eta 21ean, Il Golfo Dell'Isola lasterketan. Hilaren 19an atariko 9 kilometroko proba egingo dute, ondoren, 21ean burutuko duten 25 kilometroko lasterketan zein ordenatan irtengo diren jakiteko. Urrutia, aldiz, SkyMasters finalean izango da astebete geroago, urriaren 28an eta 29an, eta kasu honetan ere Italian jokatuko da Limone sul Gardan. Finaletara begirako errepasoa egin dugu eurekin.

### Osa unerik onenean iristen da

Malen Osa Golden Trail Serieseko hirugarren postuan iritsiko da Italiako lasterketara, duela hiru aste Kaliforniako Mammoth Trail Fest lasterketan bosgarren postua eskuratu ostean. Hain zuzen, Estatu Batuetako lasterketaren ostean buru-belarri dabil urriaren 19tik 21era jokatuko den finala prestatzen. "Ameriketatik itzuli naizenetik oso ondo ari naiz errekuperatzen eta pozik nago ikusita nola iristen naizen", dio Osak. Korrikalari oñatiarrak gaineratu du denboraldi amaieran normalean nekea nabaritzen dela, baina oraingoan ez duela horrelako sentsaziorik; are gehiago, Osak adierazi duenez "denboraldiko unerik onenean" iristen da azken txanpa honetara.

Une gozo hau aprobetxatu nahiko du oñatiarrak Italian zeregin on bat egin, eta, une honetan, Golden Trail Serieseko sailkapen orokorrean duen hirugarren postu hori babesteko. Malen Osak aitortu du ez zuela "inondik inora" espero sailkapeneko postu horretan izatea: "Denboraldi hasieran, lehen hamarren artean sailkatzea zen nire ametsa, eta, kontrakorik ezean, helburu hori bete dut. Orain, hirugarren postuan nagoela ikusita, postu hori mantentzea da helburua, baina lehenengo bosten artean gelditu gero ere, asko baloratuko dudan emaitza izango da".

**OSAK ETA KORTAZARREK GOLDEN TRAIL SERIESEKO FINALA JOKATUKO DUTE**

Final handiari dagokionez, Osak dio lasterketa nahiko "berezia" dela, eta lasterketako gakoei erreparatuta "jaitsieretan" egon daitezkeela uste du: "Lasterketak duen 1200 metroko desnibel positiboa bost igoeratan banatzen da; beraz, uste dut hasierako jaitsieratan oso azkar ez sartzean egon daitekeela gakoa, bestela, amaierara indar barik iristeko arriskua egon daitekeelako". Ikusi egin beharko da lehen hiru sailkatuen artean amaitzen duen edo ez, baina garbi dagoena da denboraldiko azken lasterketa izango dela Osarentzat.

### Kortazar aukera aprobetxatzera

Oihana Kortazar ere Italian izango da datorren astean, eta ziur hauspotuta iritsiko dela asteburuan Ultra Sanabria lasterketan lehen postua eskuratu ostean. Uda lasaia igaro ostean, denboraldiko bigarren zatira atseden hartuta iritsiko da elgetarra, eta Trail Serieseko finalera sailkatu izana aprobetxatu nahi du. "Batek daki ea berriz bertan egongo naizen edo ez, beraz, lortutako aukera aprobetxatzera noa", dio Kortazarrek.

**AINARA URRUTIA ARETXABALETARRA SKYMASTERSEKO FINALEAN IZANGO DA HIRU ASTE BARRU**

Era berean, aitortu du nahiago lukeela lasterketak distantzia handiagoa balu. "Egia esan, lasterketa eta distantzia ez dira aproposenak niretzat, eta asteburuan egin dudana ikusita nahiago nuke Golden Trail Serieseko finala 40 kilometrokoa izatea, nahiz eta denboraldiaren azken txanpan gauden", dio elgetarrak. Lasterketarik aproposena ez izanda ere lehiatzera aterako da Oihana Kortazar, eta azpimarratu du lasterketa "motza" izateak ez duela esan gura "erraza" izango denik.

Denboraldi amaierara forma onean iritsita Italiakoa ez da izango Kortazarrek jokatuko duen azken lasterketa. Golden Trail Serieseko finaletik itzuli ondoren, Menorcara bidaiatuko du Camí de Cavalls etapaka egiten den lasterketa jokatzera. Horren ondoren, Tarragonan 60 kilometroko lasterketa batean parte hartuko du, eta amaitzeko Argentina eta Txile artean egiten den El Cruce de los Andes lasterketan lehiatuko da.

### Urrutia azken esfortzua egitera

Aretxabaletarren kasuan, SkyRunner World Serieseko SkyMasters finala jokatuko du bi aste barru; lasterketa hau ere Italian jokatuko da, Limone sul Garda herrian. Portugalen bigarren postua eskuratu berri du, sailkapen orokorrean postu bat aurreratzeko balio izan diona. Aretxabaletarrak aitortu du denboraldia "luze" egiten ari zaiola, eta maratoietan estreinatu izana gorputzean nabari duela, baina, era berean, prest iritsiko dela lan "txukun" bat egiteko. "Lehen hamarren artean sailkatzea ikaragarria litzateke, baina gertatzen ez bada bizitako esperientziarekin geldituko naiz", dio Urrutiak.

Finalera sentsazio "onekin" iristen dela gaineratu du, eta beretzat lasterketa "aproposa" dela dio. "Igoera eta jaitsiera bat ditu, 25 kilometro inguru eta 2200 metroko desnibel positiboa, eta oso lasterketa azkarra da. Hasiera batean, gustuko dut lasterketa", adierazi du aretxabaletarrak. Italiakoarekin amaituko ditu printzipioz Ainara Urrutiak denboraldi honetako lanak, baina, beste lasterketaren bat eginez gero, "disfrutatzeko" egingo duela aitortu du.

# Amestutako hasiera UDArena eta Bergararena

FUTBOLA Gizonezkoen Ohorezko Erregional Mailan bost jardunaldi jokatu direnean, UDA eta Bergara bigarren eta hirugarren dira, hurrenez hurren, momentuz, partidurik galdu gabe. Biek ala biek bolada ona luzatu nahi dute ahal bezainbeste

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Zubiak ere ez du futbol jardunaldia gelditurko asteburuan eta hitzordu dezente izango dira gure taldeei lotuta. Ohorezko Erregional Mailan dabiltzan UDAk eta Bergarak orain arte egindako liga hasiera bikainari –bigarren eta hirugarren dira sailkapenean– jarraipena eman gurako diete asteburuan Beasain eta Tolosa menderatuta.

**UDA olatu aparretan**

Partidurik galdu gabe daude aretxabaletarrak, eta normala den moduan entrenatzailea ere "pozik" da denboraldi hasiera ona eginda. Iazkoarekin alderatuta oso bestelako egoeran daude Unai Calzonenak, baina prestatzaileak ez du uste egoera asko aldatu denik. "Iaz lehen itzulian asko sufritu genuen, baina neurketa askotan, lana ondo egin eta aurkaria baino gehiago izaten ginen, baina ez genuen saririk lortzen. Bigarren itzulian, ordea, ikasi egin genuen, eta izugarrizko itzulia burutu genuen. Aurtengo hasiera ona horren jarraipena da", dio Unai Calzonek.

Era berean aitortzen du futbola "dinamikak" direla eta eurak une "gozoan" daudela orain: "Ondo hasi garen arren, jakitun gara une gogorrak ere etorriko direla, eta prest gaude horretarako. Zentzu horretan iaz master bat izan genuen, eta horrelako uneetan nola lehiatu ikasi genuen".

Momentuz bolada onari eutsi gura diote asteburuan Beasainen aurka. "Partida zaila aurreikusten dugu. Behetik jokatzen duen taldea da, eta kalitatezkoa. Espero dugu etxekoen babesarekin partida aurrera atera ahal izatea", adierazi du Calzonek.

**Mahoneroak ere ezin hobeto**

Bergararrak ere aretxabaletarren ispilua direla esan daiteke; iaz lehen itzulian sufrituta, bigarren itzuli zoragarri bat burutu zuten, eta aurtengo denboraldian UDAren puntu berdinekin (13), hirugarren postuan da Iker Ruiz de Larramendik zuzentzen duen taldea. "Iaz 13 puntu atera genituen itzuli oso batean, eta aurten bost partidutan lortu dugu hori", dio Ruiz de Larramendik. Hasiera ezin hobea eman dio Bergarak ere denboraldi berriari; iazkoaren jarraipena dela uste du entrenatzaile bergararrak: "Proiektuak jarraipena izateak asko laguntzen du. Jokalari zein entrenatzaileok konfiantza asko dugu elkarrengan, eta horrek eragin zuzena izan du denboraldi hasiera honetan. Emaitzetan, jokoan, baina, batez ere, egunerokotasunean, oso ondo ikusten dut taldea".


Bergarako Ibai Leizeaga eta Iker Etxaniz gola ospatzen. IMANOL SORIANO

**BERGARA ETA UDA HAMAHIRU PUNTUREKIN BERDINDUTA DAUDE SAILKAPENEAN**

Hasiera ona izan arren, hankak lurrean ditu Ruiz de Larramendik, kategoria honetan "edozeinek edozeini" irabaz diezaiokeela azpimarratuz eta "une okerragoak" iritsiko direla jakitun. Dena dela, taldea prest ikusten du horretarako: "Taldeko giroa oso ona da, jokalari berriak ondo moldatu dira gure dinamikara. Horregatik taldea prest ikusten dut une gogorretan ere aurrera egiteko". Dena dela, bolada onari jarraipena ematea da helburua, eta hori, asteburuan, etxean, Tolosaren aurkako partidua irabazita egin gura dute. "Baloia jokatzen saiatuko den taldea da, eta prest egon behar dugu egoera horretarako; etxean jokatuta, prest gaude horretarako".

**Gainontzekoen jardunaldia**

Futbola ez da gelditurko gainontzeko taldeentzat ere. Gorengoen mailan, Aloñak eta UDAk derbia jokatuko dute Azkoagainen; Mondrak Billabonaren bisita izango du; Antzuolak Zestoan jokatuko du; eta Bergarak, bestalde, Segura Goierrirekin neurtuko ditu indarrak. Emakumezkoen Ohorezko Erregional mailan, Debagoiena Bailara denboraldiko lehen garaipena eskuratzen saiatuko da Beti Gazteren zelaian.

## Ointxe!-koak Euskal Kopako finalerako txartela eskuratzera

SASKIBALOIA Bihar jokatuko dute finalerdia Askartzan. Bi talde onenak urtarrileko finalean izango dira

I.B.K. DEBAGOIENA

Ointxe! Saskibaloi Taldeko neskak Euskal Kopako finalerdiak jokatzekoak dira bihar Askartzan. Orain arte kanporaketak gainditzen joan dira, baina finalerdiaren kasuan, lauko finaleko formatuan jokatuko da, hau da, bi talde onenek eskuratuko dute urtarrilean jokatuko den finalerako txartela. Iñaki Ogara taldeko entrenatzaileak azpimarratu du orain arte egindako lana "oso ona" izan dela eta finalean izatea merezi dutela. "Norbaitek merezi badu uste dut gu garela. Ilusioan eta esfortzuan ezin digu inork irabazi. Gainera, bailarako neska gazteentzat erreferenteak dira jokalariak, eta finalean egoteak asko esango luke", dio Ogarak.

Era berean, kontziente dira lana gogotik egin beharko dutela urtarrileko finalean izateko, are gehiago aurkaria zein den ikusita. "Iruñeko San Ignacio izango dugu aurrean. Oso talde gogorra da, eta finalerdi zaila aurreikusten dugu. Partidaren gidaritzak geurea izan behar du, baina, horretaz gain, defentsan eta errebotean ere lan ona egin beharko dugu", aitortu du arrasatearren entrenatzaileak.

**MUk etxetik kanpo berriz**

EBA mailan jokatzen duen Mondragon Unibertsitateak etxetik kanpo jokatuko du bigarren astez jarraian. Iragan asteburuan garaipena eskuratu zuten (74-77) Santurtziren kantxan, denboraldiko lehen garaipena izan zenean. Oraingo honetan, bigarrena jarraian lortzen saiatuko dira Redline Mekanika Take talde tolosarraren aurka. Partidua domekan, hilak 15, jokatuko da arratsaldeko 18:00etan.

## Lehen garaipena etxean eskuratu gura du Aloña Mendik

ESKUBALOIA Ligako lehen partiduan, Erromon, berdinketa eskuratu ostean, oraingoan Urduliz izango dute bisitari

I.B.K. DEBAGOIENA

Fagor Industrial Aloña Mendik Erromoren aurkako berdinketarekin (27-27) ekin dio denboraldi berriari. Aldaketak jasan dituzte oñatiarrek, jokalari garrantzitsu batzuek taldea utzi dutelako, baina batez ere aulkian entrenatzaile berria dutelako, Ander Arrizabalaga. Aldaketak aldaketa, taldea lehiakor ikusi zuen prestatzaile oñatiarrak Erromoren kantxan: "Neurketa gorabeheratsua izan zen; zati batzuetan aurretik eta beste batzuetan atzetik ibili ginen. Etxetik kanpo berdinketa eskuratuta pozik nago". Gainera, azpimarratu du jokalari "guztiek" jokatu zutela, eta alde horretatik ere pozik agertu da Arrizabalaga.

Era berean, txantxikuarren entrenatzailea jakitun da denboraldi hasiera dela eta oraindik "hobetzeko" gauzak dituztela, baina taldea prest ikusten du horretarako, jokalariak "motibatuta" ikusten dituelako hasieratik. Etxetik kanpo lortutako puntua ondu gura dute asteburu honetan etxean estreinako partidua izango dutenean; aurkaria Urduliz izango da.

**BKEk eta Arrasatek, kanpoan**

Kategoria bat beherago lehiatzen dira Soraluce BKE eta Mugarri Ingou Arrasate taldeak. Mahoneroek irabazi egin zuten asteburuan (27-23), eta aste honetan garaipen hori errepikatzen saiatuko dira etxetik kanpo Leizaranen kantxan. Arrasatearrak, berriz, berdintzetik (23-23) iritsiko dira asteburu honetara, eta hauek ere etxetik kanpo denboraldiko lehen garaipena eskuratzen saiatuko dira, Urnietaren aurka.

# "Dekoratu eta bestelako berrikuntza asko ditugu"

**IKER GALARTZA** GURE ZIRKUKO ARDURADUNA ETA POXPOLO PAILAZOA

2018an egin zuen Gure Zirkuak lehen ibilbidea, eta Eskoriatza eta Elgeta izan zituen geltoki; Arrasaten izan zen 2020an, eta Aretxabaletan dira urriaren 28ra bitartean

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ARETXABALETA

Etzi, egubakoitza, hasita, hamaika emanaldi eskainiko dituzte guztira, MUko Ikus-entzunezko fakultatearen ondoan kokatu duten karpan; *Gurezirkua.eus* atarian daude sarrerak, hamalau eurotan, eskuragarri.



Iker Galartza, *Poxpolo* pailazoa, Gure Zirkuko taularen gainean. IMANOL SORIANO

**Tafallatik etorri zarete; zer moduz ibili zarete Nafarroa aldean?**

Nafarroa oso anitza da, bada, Sakanan, adibidez, oso ondo ibili gara Arbizun egon garenean, gune oso euskalduna da, baina Tafallako egoera bestelakoa da. Han ere oso gustura ibili gara, oso ondo hartu gaituzte, baina kostatu zaigu egun batzuetan harmailak betetzea.

**Izan ere, ikuskizun bera egiten duzue toki guztietan, baina hartzeko modua ezberdina da, ezta?**

Aurtengo biran apustu garrantzitsuak egin ditugu, eta oso harro eta pozik gaude. Maulen izan gara, Portugaleten eta Tafallan ere bai; hortaz, Euskal Herria puntarik punta zeharkatu dugu eta, tartean, Elorrion eta Markinan ere izan gara, eta, Aretxabaletan gaude orain; lurralde erosoagoak dira batzuk, baina ongi etorriak izan gara, toki guztietan.

**Seigarren bira da egiten ari zaretena, beraz, seigarren ikuskizuna.**

Urtero ikuskizun bat estreinatu dugu, beraz, Arrasateko emanaldietan izan zirenek oso bestelako espektakulua topatuko dute Aretxabaletakoetara etorriz gero. Aurreko batean komentatzen ibili ginen Frantzian hango zirku batek lau urteko bira egiten duela, baina Euskal Herria txikia da eta emanaldietako zonaldeak urtetik urtera errepikatzen direla kontuan hartuta, urtero ikuskizun berria estreinatzera bultzatzen gaitu.

**Zelako berrikuntzak topatuko ditugu, adibidez?**

Askotarikoak. Ausartak izan gara, eta koska bat gora egin dugu. Lantaldean jende berdinarekin urte asko ari gara lanean eta, gure mugak ditugun arren, gauza berriak sortzeko ahalegina egiten dugu eta beste behin lortu dugu gauza berriak asmatzea. Adibidez: dekoratu berriak daude eta abestiak goitik behera aldatu ditugu; akrobatak beste era batean ikusiko ditugu goian, eta Ekain malabarista, orain arte moduan pilotarekin eta txapelarekin beharrean, teniseko erraketekin. Topikoa da, baina gure tunelean sartzea magikoa da!

**Zure ametsa zen euskal zirkua sortzea; sortu zenuen eta arrakastarekin ari zarete irauten.**

Irautea ez da samurra, baina segi egin behar da askotariko zailtasunekin: eguraldia, karpa muntatzeko toki aproposa topatzea... Baina hortxe gabiltza borrokarako indartsu eta gogotsu, hasierako ilusioarekin eta umiltasunarekin. Horrek jarri gaitu gauden tokian.

**Bidean gauza asko ikasita ere bai.**

Bai, horixe! Orain azkarrago muntatzen dugu karpa, esaterako. Kondizio hobeetan ere bagaude, karabana gehiago ditugu, bakoitzak bere *roulotte*-a du orain. Gauzak hobetzea lortu dugu, lan eta bizi baldintzak duinagoak. Hala ere, zirkua zirkua da, ibiltariak gara eta toki ezberdinetan egokitzen jakin behar da.

**Lantaldea baino familia da zuena. Sei urtetan kide berak zarete?**

Zertxobait handitu da familia, eta oinarrian, hezurdura nagusia mantentzen dugu. Gaur egun 20 lagun gara, eta horietatik 17 Arrasaten egon ginen. Azken hiru urteetan, bi baja izan ditugu, eta horien ordez, bi kide berri etorri dira. Hasierako egiturari eusten diogu eta inportantea da hori.

**Lantalde horretan zure semea eta alaba ere badaude.**

Bai, laster akaso aitari ipurdiko bat emango diote, baina oraindik pozik eusten diete. Zaharrena nerabezaro bete-betean dago, baina zirkuari heltzen dio oraindik. Familia guztietan moduan, negoziazioak izaten ditugu: oraintxe lagunekin, gero gurekin... Pena emango lidake ikasi duten guztiarekin zirkua albo batera uzteak, beraz, luzaroan eustea nahiko nuke.

**Oihal akrobaziak egiten dituen Agurtzane Telleria arrasatearrak zuekin jarraitzen du?**

Ez, bajatako bat da hori. Beste bizitza proiektu bati heldu dio, eta amatasunari denbora eskaini behar ziola esan zigun. Sarritan bidaltzen dizkigu Nora txikiaren argazkiak, eta Aretxabaletan ere gertu-gertu izango da, seguru.

**Hamaika emanaldi eskainiko dituzue urriaren 28ra bitartean. Zelan doa sarrera salmenta?**

Egunaren arabera; emanaldi batzuetarako online-sarrerak –*Gurezirkua.eus*– agortu egin dira, baina txarteldegian 50 edo 60 inguru txartel beti izango dira. Orain dela bi urte erabaki hori hartu genuen eta hala segitzen dugu.

**Txarteldegiaren ondoan izango da palomitak erosteko postua?**

Bai, palomitak eta ura, besterik ez. Ez dugu *merchandising*-ik.

**Aretxabaletako lanak egin ondoren, zer asmo duzue?**

Usurbilera goaz, handik ere aspalditik deika ari dira, eta modu polita da aurtengo bira bukatzeko. Udaberrian abentura gehiago izango ditugu, esaterako, Nafarroa Beherera heldu nahi dugu.

**"AURTEN APUSTU GARRANTZITSUAK EGIN DITUGU, ETA HARRO ETA POZIK GAUDE"**

**"HASTAPENETAKO FAMILIAREN EDO LANTALDEAREN HEZURDURA NAGUSIA MANTENTZEN DUGU"**





Neallta Fola Aretxabaletako hirukotea, Bergarako Zumelaga jatetxean. POLI KARPO

# Neallta Folaren bigarren bilduma, entzungai

Aretxabaletako hirukoteak Bordelen, Parisen eta Saran hiru kontzertu eskainiko ditu, egunotan, Arrasateko Perlata taldearekin batera egingo duen biran; Aretxabaletakoek 'Hemen eta orain' bilduma argitaratu dute plataforma digitaletan eta binilo formatuan

**A. Aranburuzabala** ARETXABALETA

2006an abiatu zuten Aretxabaletako Neallta Fola taldea, eta handik bi urtera argitaratu zuten *Iraultza* izeneko lehen diskoa. 2013an lozorroan sartu zen hirukotea, eta iazko irailean itzuli zen agertoki gainera lagun musikazale baten omenaldian parte hartzeko aitzakia hartuta.

Karlos Lopez *Karlote* (gitarra-jolea eta ahotsa), Gorka Uriarte *Kanutillo* (baxu-jolea eta ahotsa) eta Ander Moreno *Morenito* bateria-jolea dira gaur egun Neallta Fola, eta "indarberrituta" daude, irailean plataforma digitaletan erakutsi zuten eta asteon binilo formatuan izango duten *Hemen eta orain* bigarren lana argitaratuta.

## 'Hemen eta orain' bilduma

Sei kanturekin osatu dute bigarren diskoa. "Kantu gehienak aspaldi egindakoak dira, baina moldaketa batzuk egin dizkiegu; hitzak, adibidez, gaur eguneratu egin ditugu, eta mimoz zaindu dugu soinua, nahiz eta, oinarrian, gure estiloari fidel izaten jarraitzen dugun", dio *Karlote*-k, eta zera gaineratu: "Iruñeko Sounds of Sirens estudioan grabatu genuen, urtarril hasieran, Julen Orzaizekin, eta bi zigilurekin atera dugu diskoa binilo formatuan: TAE Records eta Kaset Ekoizpenak izenekoekin. Diskoaren diseinua Iruñeko Eneko Lizardik egin du. Plataforma digitaletan dago bilduma osoa entzungai, eta binilo formatuan gurago duenak kontzertuetan eta aipatutako bi diskoetxeen atarietan izango du eskuragarri".

Hainbat musikariren kolaborazioak izan dituzte bigarren bilduma grabatzerako orduan.

**'HEMEN ETA ORAIN' LANA AURKEZTUKO DU NEALLTA FOLAK PERLATAREKIN EGINGO DUEN BIRAN**

Hala dio taldeko gitarra-joleak: "Adibidez, *Buelta eman* kantuan Ibai Akizuren saxoa entzungo duzue, eta *Aurrez aurre* kantuan, berriz, Perlatako Maialenen eta Aneren ahotsak sartu ditugu".

## Frantziako bira, egunotan

Aspaldiko lagun-harremana dute Aretxabaletako Neallta Folak eta Arrasateko Perlata taldeak, eta adiskidetasun horren eragina da gaur hasi eta asteburuan zehar Frantzian elkarrekin egingo duten bira. "Garai batean, gaur egun gure bateria-jolea den *Morenito* eurekin jotzen ibili zen denbora luze batean. Gaur abiatuko dugun bira ere hala sortu zen, lagunarteko zerbait moduan. Hasiera batean kontzertu gehiago eskaintzeko asmoa genuen, baina lan kontuak eta bestelako arrazoiak tarteko, azkenean hiru emanaldi egingo ditugu Bordeleko, Parisko eta Sarako areto txiki banatan. Bakoitzak bere errepertorioa prestatu du, baina izango da sorpresarik, seguru".

Goienakideen txokoa

URRIKO SARIAK



Tableta
InnJoo Superb Plus tableta
Parte hartzeko sariaren izena: tablet
EROSKI ARRASATE

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ oñatiko kobak

Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea
www.harremandenda.org

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako sarrerak
Arrasateko Udalari esker
'Ni eta nitarrak' antzerkirako sarrerak ditugu.
Arrasate | Jame | Urriak 22 | 19:30
PARTE HARTZEKO:
E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Ni" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi tarta goxo bat
GOXO-GOXUA GOZOTEGIARI ESKER TARTA BAT
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: urriak 17.
943 25 05 05 goienakide@goiena.eus 'Goiena app'-a / zozketa atalean.
GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...
BAZKIDETZA KUOTA: 45 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena kide
0km: batzen gaituen distantzia.

## IRAGARKI SAILKATUAK

### 1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola edo Bergara.** Errentan hartzeko pisu edo logela baten bila nabil. 613 88 98 48

**Arrasate, Aretxabaleta edo inguruak.** Errentan hartzeko pisu bila dabilen emakumea naiz. Arrasate, Aretxabaleta edo inguruetan bada hobeto. Telefonoa: 631 95 04 42

**Arrasate.** Errentan hartzeko pisu bila dabilen bikote bat gara. Erdigunetik gertu bada hobeto. Ez dugu umerik ezta etxeko animaliarik ere. Erreferentzia onak eta lanpostu finkoak ditugu. 680 87 38 66

### 2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

**Bergara, Ibargarai.** Kotxe ez oso handia edo motorrantzako garaje itxia ematen da errentan. Garajea partekatua izango da eta sarrera errazduna. 679 74 00 61

### 4. LANA

401. ESKAINTZAK

**Bergara eta inguruak.** Zuzenbidean lizentziatua edo Zuzenbideko Gradua duen pertsona behar da Bergarako Jabetza Erregistroan lan egiteko. Ordutegia: 09:00-17:00. Interesatuak deitu: 943 76 13 15

402. ESKAERAK

**Arrasate.** Astebukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut eta 6 urteko lan esperientzia. Telefonoa: 722 89 60 36 (Maria Mercedes)

**Arrasate.** Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

**Arrasate.** Pertsona nagusiak eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario eta garbiketa ikasketak ditut. Gauetan edo astebukaeratan egingo nuke lana. 632 83 32 44

**Bergara.** Garbiketa lanetan eskarmentu handiko emakumea etxeak garbitzeko gertu. Astelehenetik ostiralera, orduka. Telefonoa: 647 51 52 80

**Debagoiena.** Arlo ezberdinetan lan egiteko prest dagoen mutila. Garbiketan, eraikuntzan, lorazaintzan, mendien garbiketan eta igeltsero bezala lan egin dut. Eraikuntzaren inguruko ikasketen ziurtagiria dut. Ordutegi aukera guztiak. Deitu 631 56 34 07 telefonora.

**Debagoiena.** Aste barruan garbiketa lanak egiten jarduteko prest nago. 688 65 32 00

**Debagoiena.** Edozein motatako lan bila nabilen neska euskalduna naiz. Ostiral arratsaldetan, astebukaeretan eta jaiegunetan lan egiteko prest. Edozein ordutegitara moldatu naiteke. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. 656 79 28 37

**Debagoiena.** Emakumea garbitasunean edota nagusien zaintzan lan egiteko prest. Soziosanitario ziurtagiria dut, baita legezko agiriak ere. Telefonoa: 677 00 90 26

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko langile moduan, garbiketan edota nagusiak zaintzen lan egiteko. 632 19 08 26

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka egingo nuke lan. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Telefonoa: 658 92 43 73

**Debagoiena.** Emakumea soziosanitario ikasketekin eta legezko agiriekin, astelehenetik igandera bitartean orduka, nagusien zaintzan zein garbiketan lan egiteko prest. 631 25 26 77

**Debagoiena.** Emakumezkoa prest, pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko nahiz garbiketa lanetarako. Esperientziaduna. 603 26 66 18. Erika

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak ditut. Astelehenetik ostiralera arratsaldez edo astebukaeretan edozein ordutan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Deitu 631 03 34 99 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Soziosanitario ziurtagiria dut. Telefonoa: 605 28 85 92

**BERGARA**

Zuzenbidean lizentziatua edo Zuzenbideko Gradua duen pertsona behar da Bergarako Jabetza Erregistroan lan egiteko.
Interesatuak deitu: 943 76 13 15
Ordutegia: 09:00-17:00

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka, nagusien zaintzan edo garbiketan lan egingo nuke. Deitu 631 96 46 33 telefono honetara.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edo nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Astelehenetik ostiralera bitartean, orduka, lan egiteko prest dagoen emakumea. Deitu telefono zenbaki honetara: 603 71 72 39

**Debagoiena.** Garbiketa lanak, nagusien zaintza edota sukaldari laguntzaile lanak egingo nituzke. Astelehenetik igandera bitartean, orduka, lan egiteko prest. Telefonoa: 623 73 73 26

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, asteburuetan. Deitu 612 56 12 39 zenbakira.

**Debagoiena.** Gaueko zaintza etxean zein ospitalean egiteko prest dagoen emakumea. Erakundeek eskatzen duten soziosanitario ziurtagiria dut. 631 95 04 42

**Debagoiena.** Gauez etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar orduka lan egingo nuke. Kotxea daukat. Soziosanitario ziurtagiria dut. Deitu 678 80 96 01 zenbakira

**Debagoiena.** Gizonezkoa gertu nagusiak zaintzeko astebukaeretan, etxean zein ospitalean. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 666 21 36 37

**Debagoiena.** Landa eremuan lan egiteko prest dagoen gizonezkoa. Deitu 612 58 82 68 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke arratsaldetan, gauetan edo astebukaeretan. Esperientziadun emakumea naiz eta soziosanitario ikasketak ditut. Herrian bertan zein baserrietan lan egiteko prest, kotxea baitut. Deitu 631 98 15 50 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta denetariko garbiketak egiten lan egingo nuke. Telefonoa: 632 63 77 38

**Debagoiena.** Nagusien zaintzan, sukaldari laguntzaile, lorezain edo bestelako lanak egiteko prest dagoen gizona. Prestasun osoa. 604 19 00 27

**Debagoiena.** Neska euskalduna nagusiei lagundu eta sukaldatzeko prest. Astelehenetik ostiralera 15:00etatik aurrera, eta larunbat goizetan. Deitu 637 52 89 83 zenbakira

**Debagoiena.** Orduka edo etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko gertu nago. 613 77 18 56

**Debagoiena.** Orgak gidatzeko ikastaroa bukatu berri dut eta lan bila nabil. Horretaz gain, tabernan eta fruta dendan lan egiten eskarmentua daukat. 612 23 76 43

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta zerbitzari lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak gauzatzen ari naiz. Astelehenetik ostiralera arratsaldez eta astebukaeretan edozein ordutan lan egingo nuke. 627 99 71 73

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. Astelehenetik igandera bitartean orduka lan egiteko prest. Deitu 663 63 92 41 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta taberna zein jatetxeetan laguntzeko prest dagoen bikotea. Soziosanitario ikasketak egiten ari gara. Arratsaldean edo gauean eta asteburuetan lan egingo genuke. 613 56 68 64 edo 613 58 65 93

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Orduka lan egingo nuke, astelehenetik ostiralera zein astebukaeretan. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. 613 58 64 68

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen mutila. Orduka lan egingo nuke, astelehenetik ostiralera zein astebukaeretan. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. 613 58 65 93

**Debagoiena.** Soziosanitario titulua eta gomendio gutunak dituen emakumea lan bila. Astean zehar goizetan orduka edo gauez etxe zein ospitaletan lan egingo nuke; astebukaeretan berriz, edozein ordutegitara moldatu naiteke. Telefonoa: 647 31 48 17

**Debagoiena.** Zaintzaile edo garbiketa lanetan jarduteko prest nago. Deitu 612 27 68 33 zenbakira

**Debagoiena.** Zaintza zein garbiketa lanak egingo nituzke. 688 65 42 76 edo 631 95 04 42

### 5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

**Aramaio.** Lehen Hezkuntzako 6. mailan dagoen ikasle bati ingeles eskolak emango dizkion norbait behar dugu. Interesatuok deitu 615 79 17 07 telefono zenbakira




**IRAGARKIA JARTZEKO:**

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**'DEBAGOIENEAN EGINA'**

Oñatiko Natra enpresara egingo du bisita Iñigo Barrenak, barrutik ezagutu eta arduradunekin berba egiteko.

***'Debagoienean egina'** Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00*




**KIROL HITZORDUEN ERREPASOA**

Asteburuan egongo diren kirol hitzordu batzuen irudiak jasoko ditu Xabi Urzelaik.

***'Harmailatik'** Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30*



**'BIXI IBILI!' JOLASA, ARETXABALETAN**

Herrien arteko tribial jokoaren lehen geldialdia Aretxabaletan egingo du Aitor Agirianok.

***'Bixi ibili!'** Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30*



**JOSEBA BERAMENDIRI ELKARRIZKETA**

Exprai ilustratzailea elkarrizketatuko du Juan Kruz Lakasta kazetariak.

***'ElkarrizketTap'** Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30*



**'KONTU KONTARI' SAIO BERRIA**

Bizi-esperientzia handia duten pertsonak izango dira protagonistak. Lehena, Asun Arzuaga oñatiarra.

***'Kontu kontari'** Urriak 19, 19:30, 21:30 eta 23:30*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## HILDAKOAK

- **Juan Carlos Mendizabal Sagastigutxia.** Bergaran, irailaren 28an. 81 urte.
- **Maximo Crucelaegui Plazaola.** Aramaion, irailaren 29an. 91 urte.
- **Santiago Elejalde Plazaola.** Aramaion, irailaren 29an. 90 urte.
- **Esther Gonzalez Arribillaga.** Arrasaten, 65 urte.
- **Aitor Arsuaga Mendiaratz.** Arrasaten, irailaren 28an. 60 urte.
- **Angel Alvarez Villar "Txapas".** Arrasaten. 67 urte.
- **Juan Carlos Mendizabal Sagastigutxia.** Bergaran, irailaren 28an. 81 urte.
- **Beatriz Odriozola Saizar.** Bergaran, irailaren 28an. 62 urte.
- **Mariano Conget Jimenez "Rodolfo".** Bergaran, irailaren 30ean. 90 urte.
- **Teofilo Etxegoien Ziordia.** Oñatin, irailaren 28an. 89 urte.
- **Bernarda Anduaga Igartua.** Oñatin, urriaren 1ean. 87 urte.
- **Josefa Leon Garrido.** Oñatin. 87 urte.
- **Dionisio Larrañaga Iturbe.** Bergaran, urriaren 3an. 67 urte.
- **Felipe Sanz Saz.** Arrasaten, urriaren 5ean. 93 urte.
- **Jose Joaquin Plazaola Arrieta.** Bergaran, urriaren 5ean. 71 urte.
- **Jesusa Ibabe Errasti.** Bergaran, urriaren 8an. 91 urte.
- **Maria Isabel Arregui Arregui.** Oñatin, urriaren 6an. 91 urte.
- **Jose Maria Urcelay Ayastuy.** Oñatin, urriaren 7an. 87 urte.
- **Gonzalo Camacho Lama.** Arrasaten, urriaren 8an. 83 urte.
- **Mª Asun Biain Arana.** Bergaran, urriaren 9an. 88 urte.
- **Pedro Sologaistoa Zabaleta.** Oñatin, urriaren 9an. 83 urte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE *EGUNEZ***

Eguaztena, 11 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerias 1 / 943 79 15 15
Eguena, 12 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99
Egubakoitza, 13 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Zapatua, 14 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Domeka, 15 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 16 ESPAÑOL: Araba etorbidea 1 / 943 79 18 65
Martitzena, 17 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

**BERGARA *EGUNEZ***

Eguaztena, 11 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 12 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Egubakoitza, 13 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Zapatua, 14 ESTELLA: Matxiategi kalea 5 / 76 19 63
Domeka, 15 ESTELLA: Matxiategi kalea 5 / 76 19 63
Astelehena, 16 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 17 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

**OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK***

Eguaztena, 11 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 12 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Egubakoitza, 13 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 14 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 15 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 16 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 17 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

**ARRASATE *GAUEZ EGUNERO***
*(22:00etatik 09:00etara)*

Urtea bukatu arte: SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

**BERGARA *GAUEZ EGUNERO***
*(22:00etatik 09:00etara)*

Urtea bukatu arte: Iparragirre 2 / 943 76 11 74

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

---

**URTEURRENA**



### Reyes Biain Biain

2022ko urriaren 9an hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da,
urriaren 14an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingerukuaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2023ko irailaren 11n.

---

**URTEURRENA**



### Rosario Garitano Alberdi

Fernando Azkarate Agirrezabalen alarguna

2022ko urriaren 23an hil zen, 90 urte zituela.

*Joan zinen, baina gugan zaude, izan zinelako baikara.*
*Maitasunaren indarra.*

—

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian. Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Bergaran-Antzuolan, 2023ko urriaren 11n

---

**OROIGARRIA**



### Pedro Sologaistoa Zabaleta

Oñatin hil zen urriaren 9an, 83 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

Kalezaharra elkartea

Kalezaharra Elkartea.
Oñatin, 2023ko urriaren 11n.

---

**ESKER ONA**



### Dioni Larrañaga Iturbe

2023ko urriaren 3an hil zen, 67 urte zituela.

Lerro hauen bidez familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2023ko urriaren 11n.

---


BABESLEA

Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Guri deitu zuzenean edo, nahiago baduzue, jakinarazi zuen aseguru-konpainiari gurekin nahi duzuela agurtu maite duzuena.*

*Marioren, Ibanen, Maribiren eta Cristianen partetik, besarkada magikoak zuentzako, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk badiugu gordeta zuentzako, gure beharra duzuenerako.*

**Mario, Iban, Maribi eta Cristian**



*Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA | Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37*


---

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 175 €

▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goiena Klubeko bazkideendako 155 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Gabriel Kortabarria Ali**
Urriaren 15ean, 9 urte. Zorionak, maitia! Zure familia guztiaren partetik. Paaaaa!



OÑATI
**Irati Lizarralde**
Urriaren 14an, 4 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasau zure eguna, maittia! Patxo haundi bat familixa danaren partetik!



ESKORIATZA
**Intza Kortazar Errasti**
Urriaren 13an, 10 urte. Zorionak, maitia! Jarraitu orain arte bezalakoa izaten. Asko maite zaitugu! Patxo potolo-potolo bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Pili Rodriguez**
Urriaren 12an, 73 urte. Zorionak, guapetona. Ondo-ondo ospatu zure eguna. Patxo potolo bat denon partetik.



ARRASATE
**Aimar Egizabal Gandarias**
Urriaren 11n, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasa zure egunian eta musu pilo bat familixa danon partetik!



OÑATI
**Beñat Arregui Unamuno**
11n, 12 urte. Zorionak! Jarraitu orain arte bezalakoa izaten. Asko maite zaitugu! Muxu haundi bat zure familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Iker Gordo Dominguez**
Urriaren 11n, 7 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo ospatu zure eguna. Muxu erraldoi asko etxekoen partetik. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu.



BERGARA
**Sua Olabarria**
Urriaren 11n, urtebete. Zorionak, pittin! Besarkada eta patxo haundi bat familixa danan partetik! Asko maitxe zaitxugu!



ARETXABALETA
**Irati Romero**
Urriaren 11n, 6 urte. Zorionak, maitia! 6 urte iada gurekin! Asko maite zaitxugu, koalita!



ESKORIATZA
**Oihana Aramendi Kortazar**
Urriaren 9an, 48 urte. Zorionak, guapetona! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Besarkada potolo bat familia osoaren partetik.



BERGARA
**Martina Azkarate Lopez de Lacalle**
Urriaren 8an, 6 urte. Zorionak etxeko guztien partetik; bereziki, Martxel anaiaren partetik.



ESKORIATZA
**Ander Beitia Oianguren**
Urriaren 8an, 6 urte. Zorionak, artista! Ondo-ondo ospatu zure egune. Patxo haundi bat maitxe zaitzugun danon partetik!

### Urte askotarako!

Zoriontzeko, hiru bide dituzu:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



BERGARA
**Jennifer Caballero Garcia**
6an, 22 urte. Konturatu gabe, gure Jenny maittia haunditu egin da eta neska zoragarri baten bihurtu da. Asko maite zaitugu, guapa!

## BERRI-ZAKUA



**Jaietan**
Bergarako Espoloian jaiak ospatu dituzte asteburuan. Umeek ongietorri beroa egin zioten Espoloitxori. Ostean, askotariko ekintzak izan zituzten



**Txan magoa**
Aramaioko Untzillako jaietan egon zen aurreko zapatuan, askotariko trikimailuak egiten. Kartak, sokak eta bestelako elementuak erabili zituen.



**Karatea**
Kadete eta gazte mailetako eta 21 urtez azpiko Gipuzkoako karate txapelketa jokatu zen domekan Aretxabaletan. Bailarako ordezkariek lan ona egin zuten.



**Judoa**
Arrasateko Desoreka klubeko bost ordezkarik parte hartu zuten Torrelavegako (Kantabria) Espainiako Kopan. Domina batekin itzuli ziren.



**53. urteurrena**
Milagros Beitia eta Jose Luis Azkarate arrasatearrek urriaren 10ean bete zuten urtemuga. "Zorionak, aitaita eta amama! Oihan, Lide, Hegoi eta Garazi biloben partetik".



**Untzillako bola-txapelketa**
Jesus Agirrek irabazi zuen txapelketa, Eñaut Kortabarriarekin lehia estua izan ostean. Jende asko elkartu zen bolatokian "giro ederrean", auzoko jaietan.



**Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketa**
Aramaioko Etxaguengo bolatokian jokatutako lehen jardunaldia Angel Ibarluzeak irabazi zuen zazpi txirlorekin. Laugarren jardunaldia ere Aramaion jokatuko da, Untzillan.






**Txapeldun Anbotoko kilometro bertikalean**
Iñigo Alzola arrasatearrak irabazi zuen Anbotoko kilometro bertikala 40.03ko denborarekin. Bigarren Aitor Ajuria gatzagarra sailkatu zen (40.12).



**Etorkizuneko txirrindulariak**
Bergararrekin harreman positiboak sustatzeko bizikleta festa egin zuen aurreko zapatuan Lokatzak. Txirrindularitzaz gozatu zuten bertara joan zirenek.



**Beart Eguna eta omenaldia**
Bergarako Bearteko kideek egindako lanak ikusgai egon ziren Irala kalean. Ostean egindako bazkarian Jexus Zabaleta taldekidea omendu zuten.




**Txapeldun**
Sarutobi taldeak irabazi zuen Oñatiko Herriko Futbol Txapelketako Superkoparen finala, Albok taldea 2-1 mendean hartuta. Partidu horrekin hasi dute 2023-2024 denboraldia Oñatiko beteranoek.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUAZTENA 11

**OÑATI 'China ha vuelto para quedarse' hitzaldia**
Marcelo Muñozek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
*Santa Anan, 10:00etan.*

**BERGARA Eguztenetako azoka**
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:00etan.*

**BERGARA 'El sol del futuro' filma**
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## EGUENA 12

**ARETXABALETA 'Kurtzebarriko haitzak' ibilaldi historikoa**
Zaraia mendilerroan barrena ibiliko dira, parajeak eta pasarteak ezagutzen, Loramendi eta Ixotu! elkarteen eta Atxabaltako Gazte Mugimenduaren eskutik
*Herriko Plazan, 08:15ean.*

**OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua**
10:30ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63.
*Arantzazun.*

**LEINTZ GATZAGA 'Gatz Museoa, familian' bisita gidatua**
12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Gatz museoan.*

**OÑATI 'Kakaoaren bidaia' bisita gidatua**
Kakaoak landaretik etxera egiten duen bidea ezagutzeko aukera. Erreserba egiteko: 605 76 35 95.
*Txokolateixan, 12:00etan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**OÑATI 'Bizi pottoka' ekimena**
Zaldiekin hainbat ekintza egiteko. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus.*
*Pottokalekun, 16:00etan.*

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: The Movement**
Mod-rock doinuak Danimarkako talde beteranoarekin. Sarrerak, zazpi euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## EGUBAKOITZA 13

**OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua**
10:30ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63.
*Arantzazun.*

**OÑATI 'Arantzazuko santutegia, familian' bisita gidatua**
Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Arantzazun, 11:00etan.*

**OÑATI 'Kakaoaren bidaia' bisita gidatua**
Kakaoak landaretik etxera egiten duen bidea ezagutzeko aukera. Erreserba egiteko: 605 76 35 95.
*Txokolateixan, 12:00etan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**OÑATI 'Lehoiaren bila' bisita gidatua**
Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Arrikrutzen, 16:30ean.*

**ARETXABALETA Gure Zirkua**
Trapezisten, pailazoen eta ekilibristen emanaldiak izango dira, besteak beste.
*Unibertsitate alboko gunean, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Guacamayo' erakusketa: azken eguna**
Gaur da bilduma ikusteko azken eguna.
*Kulturaten, 17:30ean.*

## ZAPATUA 14

**BERGARA 'Lehen sorospenak haurtzaroan' ikastaroa**
Gurasoendako ikastaroa, DYAren eskutik.
*DYAren egoitzan, 10:00etan.*

**OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua**
10:30ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63.
*Arantzazun.*

**BERGARA 'Bergara monumentala' bisita gidatua**
Izena emateko: *laboratorium@bergara.eus* edo 943-76 90 03.
*Laboratoriumen, 11:00etan.*

**OÑATI Hotz Oñatiren informazio mahaia**
Proiektuen berri emateko eta materiala saltzeko.
*Foruen plazan, 11:00etan.*

**OÑATI 'Afrikako kakaoa' bisita gidatua**
Familiendako. Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Txokolateixan, 12:00etan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**ARETXABALETA 'Kuartela herrira!' jaialdia**
Kontzertuak herriko hainbat gunetan, Jo Ta Be, Kaparrak, Los Del Garage eta Youth United eta DJ Karapaixoren eskutik.
*Aretxabaletan, 14:30ean.*

**OÑATI Espeletxiki abentura**
6 urtetik gorakoendako. Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Arrikrutzen,15:00etan.*

**ARETXABALETA Gure Zirkua**
Besteak beste, trapezisten, pailazoen eta ekilibristen emanaldi bikoitza, 17:00etan eta 19:30ean.
*Unibertsitate alboko gunean.*



GOIENA

**ARETXABALETA 'Kuartela herrira!' jaialdia**
Kontzertuak egongo dira herriko hainbat gunetan eta tabernatan, Jo Ta Ke, Kaparrak, Los Del Garaje eta Youth United taldeen eta DJ Karapaixoren eskutik. Debalde.
*Zapatuan, Aretxabaletan, 14:30ean.*

**ESKORIATZA Pintxo lehiaketa**
12-16 urte artekoendako. Egindako pintxoekin afari-merienda egingo dute ostean.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**BERGARA 'Andereñoa' antzezlana**
Haurrentzako eta familientzako txotxongilo-ikuskizuna, Anita Maravillas taldearen eskutik.
*Seminarixoan, 18:00etan.*

**BERGARA Myriam Ulangaren eta Roberto Nuñoren emanaldia**
Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren baitan.
*Santa Marina parrokian, 20:00etan.*

## DOMEKA 15

**OÑATI 'Oñatiko mugarriak' mendi ibilaldia**
Arantzazu-Artasoko lepoa-Artia-Sekillaga-Aumategi-Degurixa-Araotz ibilaldia egingo dute.
*Postetxeko geltokian, 08:00etan.*

**OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua**
10:30ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63.
*Arantzazun.*

**OÑATI 'Altxorraren bila' ekimena**
Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Arantzazuko Parketxean, 11:00etan.*

**OÑATI 'Kakaoaren bidaia' bisita gidatua**
Kakaoak landaretik etxera egiten duen bidea ezagutzeko aukera. Erreserba egiteko: 605 76 35 95.
*Txokolateixan, 12:00etan.*

**BERGARA Jose Migel Zumalaberen erakusketa**
Pintura lanak ikusteko azken eguna da gaur.
*Aroztegin, 12:00etan.*

**OÑATI Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldearen disko aurkezpena**
*Arnasaldiak* diskoa aurkeztuko dute. Sarrerak, ohiko lekuetan, sei eurotan. Egunean bertan, leihatilan ere bai.
*Gaztelekuan, 12:30ean.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**ESKORIATZA Zinema emanaldia**
Umeendako pelikula.
*Zaldibar aretoan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Gure Zirkua**
Trapezisten, pailazoen eta ekilibristen emanaldiak.
*Unibertsitate alboko gunean, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Zinema emanaldia**
Helduendako pelikula.
*Zaldibar aretoan, 19:00etan.*



ANITA MARAVILLAS

**BERGARA 'Andereñoa' antzezlana**
Haurrentzako eta familientzako txotxongilo-ikuskizuna Anita Maravillas taldearen eskutik. Andereñoak eta bere gelako txikiak eskola eder bat eraiki dute elkarrekin, basoan animalia guztientzako tokia duen eskola bat.
*Zapatuan, Seminarixoan, 18:00etan.*

## ASTELEHENA 16

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*San Martin plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**OÑATI Adinekoen erorikoak saihesteko tailerra**
65 urtetik gorakoendako tailerra da. Informazioa jasotzeko eta izena emateko osasun zentrora joan beharko da.
*Zubikoa kiroldegian, 16:00etan.*

**ARETXABALETA Odol ateratzea**
Aretxabaletar guztiak gonbidatu dituzte odola ematera. Dei berezia egin diete odola lehen aldiz emango dutenei.
*Durana kalean, 16:45ean.*

**OÑATI Idazketa tailerra**
Joxemari Iturraldek gidatuta egingo dute. Gaur hasiko dute ikasturtea.
*Liburutegian, 18:00etan.*

## MARTITZENA 17

**BERGARA 'Euskararen aurkako oldarraldi judiziala' hitzaldia**
Iñigo Urrutiak egingo du berba, Jardunek gonbidatuta.
*Irizar jauregian, 10:00etan.*

**ANTZUOLA Elikadura nahasmenduei buruzkoak**
Maria Jose Arruti psikologoak egingo du berba.
*Olaran etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE Komiki solasaldia**
Teresa Valeroren *Contrapaso* komikia izango dute hizpide.
*Bibliotekan,18:00etan.*

**OÑATI Komiki solasaldia**
Juan Luis Landaren eta Joxean Muñozen *Irati eta Orreagako kronikak,* Igor Leturiak gidatuta.
*Liburutegian,18:30ean.*

**ELGETA Hitzez Pitz irakurketa taldea**
Nerea Ibarzabalen *Bar Gloria* liburuaren gaineko saioa.
*Liburutegian, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 18

**BERGARA 'Testamentua ondo egiteko azalpen praktikoak' hitzaldia**
Bergarako notario Maria Longartek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**ESKORIATZA Bingo-jokoa**
3-12 urte artekoendako.
*Ludotekan, 16:45ean.*

**ESKORIATZA Isun sinbolikoak ipintzen**
Aste Berdearen baitan, gaizki aparkatuta dauden autoei egurrezko isunak ipiniko dizkiete herriko umeek.
*Ludotekatik abiatuta, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Literatura solasaldia**
Juan Tallonen *Obra maestra* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta.
*Liburutegian, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Idazketa tailerra Miru sorginarekin**
Ipuin bat sortuko dute 4 eta 9 urte bitarteko neska-mutikoek.
*Arkupen, 18:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Garaiko produktuak erosteko.
*Oxirondon, 18:00etan.*

**BERGARA 'Creatura' pelikula**
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
*Seminarixoan, 20:00etan*

## EGUENA 19

**ARRASATE Sasoibide**
Bi ibilbide aukeran: Uribe auzora bata, eta Garagartzara bestea. Norberak aukeratu beharko du zein egin.
*Biteri plazan, 10:00etan.*

**ARRASATE Literatura solasaldia**
Pier Paolo Pasoliniren *Kale gorriko umeak* liburuaren gaineko saioa.
*Bibliotekan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Literatura solasaldia**
Jose Luis Millasen eta Juan Luis Arsuagaren *La vida contada por un sapiens a un neandertal* liburuaren gainekoa, Monica Leivak gidatuta.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**BERGARA 'Haurren aurrean, helduok heldu' ekimenaren aurkezpena**
Irekia. Urriaren 29ra arte egingo diren ekintzak aurkeztuko dituzte. Parte hartzeko, izena aurrez.
*Uned-en, 18:30ean.*

**OÑATI 'El retorno de las golondrinas' filma**
Li Ruijun zuzendariaren lana, zineklubean. Sarrerak, bost euro.
*Zinema aretoan, 20:00etan.*

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: Munlet bikotea**
Bikote sinte-zirikatzailea Devo taldea zenari omenaldia eginez. Sarrerak, zazpi euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## EGUBAKOITZA 20

**ARRASATE 'Stem' tailerra familiendako**
Zientzia eta teknologia jolasak, Mari Luz Guenagarekin, 10-14 urte artekoendako.
*Santa Marinako auzo bibliotekan, 17:00etan.*

**BERGARA Kantu eta jolasak familiendako**
HHko eta LHko lehenengo eta bigarren mailetako familiendako, *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenaren baitan.
*Oxirondon, 17:15ean.*

**ELGETA Ipuinen Ordua**
17:30ean, HHko 2., 3., eta 4. mailakoendako; 18:00etan, HHko 5. eta LHko 1. eta 2. mailakoendako; eta 18:30ean, LHko 3., 4., eta 5. mailakoendako.
*Liburutegian.*

**ESKORIATZA 'Naturaren balioak zertarako balio ote?' hitzaldia**
Ikertzaile eta irakasle Unai Pascualek egingo du berba, Aste Berdearen baitan.
*Zaldibar antzokian, 18:00etan.*

**ELGETA Txuma Murugarrenen emanaldia**
Nick Cave musikariaren lanaren errepasoa egingo du, Rafa Aceves pianistaren eta Natxo Beltran bateria-jolearen laguntzarekin.
*Ozkarbin,19:30ean.*

## ZINEMA

**BERGARA**

SEMINARIXOA

**Barbie**
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Tortugas Ninjas: caos mutante**
Domeka: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**La voz del sol**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

**GASTEIZ**

FLORIDA

**Al otro lado del río y entre los arboles**
Eguaztenetik domekara: 19:45, 22:00. Astelehenetik eguenera: 19:45.

**Barbie**
Eguenetik domekara: 11:45.

**Campeonex**
Eguenetik domekara: 11:30.

**Cerrar los ojos**
Eguaztenetik domekara: 20:45. Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Chinas**
Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:00. Eguenetik domekara: 11:30, 17:00, 19:30, 22:00. Astelehenetik eguaztenera: 17:00, 19:30. Eguena: 17:00.

**Dispararon al pianista**
Eguaztenetik domekara: 21:30. Astelehenetik eguenera: 19:30.

**Golpe a Wall Street**
Eguaztenetik eguenera: 19:15.

**Golpe de suerte**
Eguaztenetik domekara: 17:15, 21:30. Astelehena: 17:00. Martitzenetik eguenera: 17:15.

**La vida de Brianeitor**
Eguaztena eta astelehenerik eguenera (urriak 19): 17:00. Eguenetik (urriak 12) domekara: 11:30, 17:00.

**Me he hecho viral**
Eguaztena: 17:30, 19:30, 21:30. Eguenetik (urriak 12) domekara: 11:30, 17:30, 19:30, 21:30. Astelehena eta eguaztena: 17.30, 19.30. Martitzena: 17.30, 19:15. Eguena (urriak 19): 17:00, 19:15.

**Ninja turtles**
Eguenetik domekara: 12:00.

**O corno (jatorrizko bertsioan)**
Eguaztenetik domekara: 17:00, 19:30, 22:00. Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30.

**Orlando, mi biografia politica**
Eguztenetik eguenera (urriak 19): 17:15.

**Patrulla canina: la super pelicula**
Eguaztena: 17:30, 18:45, 19:30. Eguaztenerik domekara: 12:00, 17:30, 18:45, 19:30. Astelehenetik eguenera (urriak 19): 17:30.

**Sound of freedom**
Eguaztenetik domekara: 17:00, 19:15, 21:45. Astelehena eta eguaztena: 17:00, 19:15. Martitzena eta eguena: 17:00.

**Richard la cigüeña y la joya perdida**
Eguenetik domekara: 11:45.

goiena
Zu hemen zaude.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AZKEN BERBA



MIKEL BIAIN

## Digitalizazioa

Egungo gizarteari erreparatuz, hamaika ezaugarriren artean, azpimarragarria iruditzen zait teknologiaren garapen etengabea eta horren baitan digitalizazioa eragiten ari den eraldaketa. Gizarteko esparru guztietan, gainera: izan hezkuntza, izan industria, izan finantza sektorea, administrazio publikoa…, zer ez.

Gainera, badago orokortua halako iritzi marko bat, zeinetan digitalizazioari loturiko edozein proposamen aurrerapen gisa ikusten den. Baditu alde on asko, noski, baina alde ilunak ere dezente. Adibidez, helduenen kasuan arrakala digitalak gizartearen erdia jokoz kanpo uzten du, "ez-gai" digital moduan, edozein izapide arrunt egiteko hamaika eginbehar ulertezin jarrita. Gaztetxoen kasuan, aldiz, hauetako asko jaiotzez digitalak, mundu horretan ustez ongi moldatu arren, agerikoa da luzaroan pantailara itsatsita egote horrek baduela bere ifrentzua; kontzentraziorako zailtasunak, gauzak di-da egin behar hori, liburuekiko deskonexioa, harreman galerak…

Oraindik nahiko fenomeno berria izanik, ezin garbi jakin zein ondorio utziko dizkigun, baina gutxien-gutxienean, adi-adi jarraitzeko gaia dela iruditzen zait eta espiritu kritikoz, gainera.

BUKATZEKO

# Kongresuan, interprete euskaldun "errealak"

Itziar Mendizabal interpretea da; hau da, entzundakoa berehala ahoz itzultzen du entzuleentzat. Askotariko foroetan eta erakundeetan jarduten du, eta, orain, Espainiako Kongresuan ere ari da, hizkuntza koofizialen erabilera onartu denetik

**Uxue Igarza Loiola** ARRASATE

Itziar Mendizabal Oiartzunen bizi da, baina arrasatearra da bera, eta sarri etortzen da bailarara, bere lanak hara eta hona ibiltzea eskatzen dion arren. Esaterako, Bruselan izan zen astelehenean bertan, eta Madril ere ezinbestean zapaldu behar du, Senatuan egiten baitu lan interprete gisa. Orain, gainera, Kongresuan hizkuntza koofizialak erabiltzen direnetik, Senatuko zerbitzuek berarengana jo dute interpretazio lanetarako. "Lana antzekoa da, baina beste ganbera bat da, esposizio mediatiko handiagoa du, eta, azken aldaketa honen harira, komunikabideak gainean izan ditugu", azaldu du Mendizabalek.

Europara begira jarrita, "oso testuinguru interesgarria" bizi duela azaldu du arrasatearrak: "Euskararen ofizialtasuna Europara bidean egon daitekeela dirudi, eta interprete eta euskaldun bezala interes handiarekin bizi dut mahai gainean jarri berri den aukera hori".



Itziar Mendizabal, astelehenean, Bruselan.

### Ematen duen bezain zaila

Kanpotik eman dezakeen moduan, Mendizabalek onartu du interpretearen lana ez dela erraza. Entzun, ulertu, itzuli eta komunikatu egin behar da, bizkor eta haria galdu gabe: "Hortxe dago sekretua. Gure lanbideak teknika oso landua edukitzea eskatzen du. Entzute aktiboa egin behar dugu –entzun eta berehala ulertu– eta aldi berean hizketan hasi. Kontzentrazio handia eskatzen du".

Arreta hori ezin da denbora askoz mantendu, eta horregatik txandaka egin ohi dute lan interpreteek: "Ikerketen arabera, ordubete, ordu eta erdi, egon gaitezke kontzentratuta. Horregatik eskatzen dugu bikoteka lan egitea, ordu erdiko txandak egiten. Atsedenaldiak behar ditugu; bestela, informazioa galtzen hasten gara, gauzak oker esateko arriskua izaten dugu…".

Nolanahi ere, txandak egin eta teknika oso landuta izan arren, lapsusak izaten dituzte: "Gertatzen da hitzen batekin kateatuta geratzea. Gainera, askotan berba errazekin gertatzen da, egunero erabiltzen direnekin eta ondo baino hobeto dakizkizunekin". Halakoetarako, errekurtsoak behar direla dio Mendizabalek; adibidez, esaldia birformulatu eta hitzaz gogoratzean, orduan sartzea: "Helburua entzuleak mezua zentzu osoarekin ulertzea da; hasieran ez bada, bukaeran".

### Interprete "artifizialik", ez

Adimen artifiziala, itzultzaile neuronalak eta teknologia berriak pil-pilean dauden honetan, Mendizabalek zalantzati begiratzen dio etorkizunari. Aukerak nahiz mehatxuak ikusten ditu tresna berritzaileetan, baina ez du uste makina batek interpreteen lana itzultzaileena bezain erraz ordezkatu dezakeenik: "Ahozko hizkuntza oso inperfektua da. Hitz egiten dugunean ez gara konturatzen, baina, askotan, esaldi bat hasi eta ez dugu bukatzen; edo ezezkoan hasi eta baiezkoan bukatzen dugu; gaizki ordenatzen ditugu elementuak… Baina, halere, pertsonok elkar ulertzen dugu". Arrasatearrak ez du uste, oraindik behintzat, software batek interprete euskaldun "errealen" lana ordezkatuko duenik.

GOIENA TELEBISTA
SASOI BERRIA

'BIXI IBILI!', ARETXABALETAN
URRIAREN 17AN, MARTITZENEAN, 19:30, 21:30 ETA 23:30
BIGARREN DENBORALDIA

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Reala-Mallorca eta Reala-Bartzelona partidetarako sarrerak
**futbol zelaiko tokirik onenean**

LaLiga Santander




**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**
Reala-Mallorca eta Reala-Bartzelona norgehiagokak beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Reala-Mallorca: urriaren 21ean, 14:00etan.
Parte hartzeko azken eguna: urriak 15.

Reala-Bartzelona: azaroaren 4an, 21:00etan.
Parte hartzeko azken eguna: urriak 29.



- Eserlekuak Premium gunean
- Catering zerbitzua
- Aldageletako tunelean jokalariak ikusteko aukera



- Ikus-entzunezko erabilerak
- Atentzio eta zerbitzu pertsonalizatua
- 353 metro karratuko gunea

**Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!**

**1.** Aplikazioa deskargatu.

**2.** Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

**Gertu.** Zorte on!

goiena kide

***Okm:** batzen gaituen distantzia*

www.goiena.eus/kideak

# GOIENA TELEBISTA **SASOI BERRIA**

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.